

ARRIGORRIAGA
UDALERRIKO EMAKUME
GAZTEEN PREMIEN
DIAGNOSTIKOA

“Oraintxe konturatu naiz...”



2010eko azaroa

Egilea:

ARRIGORRIAGAKO UDALA – Berdintasuna

Laguntza teknikoa:

Sortzen Consultoría S.L.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
I. METODOLOGIA	6
1.1. Azterketa kuantitatiboa.....	6
1.2. Azterketa kualitatiboa.....	7
II. XEDEA ETA HELBURUAK.....	9
Helburu orokorrak:	9
Helburu zehatzak:	9
III. EMAKUME GAZTEEN PREMIAK ETA INTERESAK, ETA PREMIA HORIEK OSATZEKO XEDEA DUTEN BERDINTASUN-POLITIKAK	10
3.1. Genero eta adinaren ikuspegi interseksionala	10
3. 2. Emakume gazteen premiak identifikatuz	14
3. 3. Ezagutzazko politikak eta birbanaketako politikak	17
IV. EMAITZEN DIAGNOSIA.....	22
4. 1. Emakume gazteen profil soziodemografikoa	22
4.2. Osasuna, sexualitatea eta gizarte-inklusioa	26
4.3. Heziketa, enplegua eta etxebizitza	28
4.4. Parte-hartze soziopolitikoa eta herritarren parte-hartzea.....	40
4.5. Aisia, kirola eta denbora libre.....	43
4.6. Harreman pertsonalak (familia, adiskideak, bikotea)	47
4.7. Emakumeen kontrako indarkeria.....	52
4.8. Desberdintasunaren pertzepzio orokorra	60
4.9. Parte-hartzaileen azken ekarpenak.....	65
4.10. Ondorioak	68
V. HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK.....	72
VI. BIBLIOGRAFIA	76
1. ERANSKINA: JARDUEREN DENBORA-BANAKETA	77
2. ERANSKINA: TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	78

SARRERA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak aurrerapauso handia eman du azken urteotan. Alabaina, aurrerapauso horiek oraindik ez dira nahikoa belaunaldi gazteak erabateko berdintasunaren helburura heldu direla esan ahal izateko.

Neska gazteen gaur egungo egoera beren amek bizi izan zutenarekin alderatzen badugu, diferentzia harrigarria ikusten da legeen, gizartearen, ekonomiaren eta abarren mailan, eta, horregatik, lehen begiratuan, dena irabazia dagoela ematen du. Baina errealitateari zehatzago begiratzen diogunean, konturatzen gara emakume gazteen kontrako diskriminazioa, itxuraz, modu onberagoan agertzen dela, baina emaitzetan modu berean da eraginkorra.

Heziketan eta enpleguaren alorretan, azken 20 urteotan aldaketak izugarritzko abiadan eman direla ikusten da. Emakumeak modu masiboan sartu dira goimailako ikasketetan eta soldatapeko lanean, eta horixe da aldaketa horren isla nabarmenenetako bat. Beste alorretan, ordea, gizon-emakume gazteak elkarren aurrez aurre jartzen dituzten arazoak daude, eta arazo horiek harreman pertsonalen esparruan agertzen dira, bai familiaren barruan, bai adiskideen artean edota bikote-harremanetan. Azken horietan, emakumeen aurka eragiten den bortizkeria sexista da desberdintasuna desagertu ez dela ondoen agertzen duen faktorea. Emakume gazteak heren bat dira beren egoera plazaratzera animatzen direnen artean, eta horrek arrazoizko zalantzak baino gehiago ere sortzen ditu gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasun formalaren gainean.

Eskuratu den berdintasunaren ideia horren ondorioz –errealitateak baino gehiago, borondateak eusten dion ideia da–, ez da adineko emakumeek bizi duten mendekotasuna ikusten –eta onartzen– den bezain erraz ikusten emakume gazteek bizi dutena. Gizartean, neska-mutilek jaiotzen diren unetik gauza berberak jaso dituztela da joera nagusia, jaiotzetik bertatik gozatu dutela aukera-berdintasunaz; areago, auzitan jarri ere egiten da batzuen eta besteen artean desberdintasunik izan daitekeenik. Familiak ez dira horretaz konturatzen, eta gazteak ere ez. Hain zuzen ere, neska batzuek nahiz mutil gazte gehienek ez dute onartzen inolako desberdintasun formalik (eta batzuetan, ezta informalik ere) dagoenik beren artean, eta inoiz iraina ere iruditzen zaie horretaz hitz egitea; baina, argi antzematen ez bazaie ere, desberdintasun-estilo berriak ari dira sortzen, itxuraz tankera demokratikoa dutenak, baina, hala eta guztiz ere, gizonen eta emakumeen arteko genero-diferentziei eusten diete.

Interes berezia du begirada emakume gazteen egoeran pausatzeak, gaztaroen antzematen baitira ondoen aldaketak, eta gaztaroen dira agerikoenak berdintasun-defizitak. Neska gazteen artean zer gertatzen den aztertzea da genero-berdintasunerako bidean egin daitekeen ekarpenik hoberena. Neurriak hartzen baldin badira, aldaketa bultzatzen baldin bada, emakume gazteen egoeraren ebaluazioak jakiten lagunduko digu zer puntutaraino ari diren neurri horiek beren xedeak lortzen.

Bestalde, emakume gazteek hainbat alorretan aurre egin behar dieten desberdintasunak ez dira ageriko moduan sumatzen, desberdintasun tradizionalak sumatzen diren bezala. Horregatik, Arrigorriagako emakume gazteek dituzten premien diagnostia egitea aukera egokia izan da udalerriko neska gazteek aurkitzen dituzten arazoan eta desberdintasunen pertzepzioa ezagutzeko, heziketaren, enpleguaren, denbora librearen alorretan, nahiz harremanetan, etxebizitzan, hiritar gisa gizartean esku hartzerakoan edo gazteen eta emakumeen asoziazionismoan.

Diagnosi hau Udaleko Berdintasunaren premia garrantzitsu batetik sortu da: egiten diren interbentzioak edo esku-hartzeak egokitzea, interbentzio horien hartzailen diren herritarrak desberdintasunetik urruntzeko.

Emakume gazteen premien diagnostia bat eginez, haien errealitateetara hurbildu ahal izan gara, eta estrategiak, orientazioak eta zedarritzeak analizatu ahal izan ditugu, biztanleriaren talde honekin modu eraginkorrean esku hartu ahal izateko gero, haren egiazko premiei erantzunez.

Gaur aurkezten diren emaitzek Arrigorriagako emakume gazteen erradiografia bat erakusten digute, genero-harremanak ikusteko, izendatzeko eta analizatzeko duten moduari buruzkoa. Alderdi konplexuak dira, eta, dudarik gabe, ez digute uzten axolagabeak izaten emakume gazteek errealitate sozialean kokatzeko duten moduaren aurrean.

I. METODOLOGIA

Honako diagnosi honetan erabili den metodologiak informazio kuantitatiboa eta informazio kualitatiboa bateratu ditu, eztabaida- eta kontraste-maila jakin bat sustatu dituzten ikerketa sozialeko teknikak erabiliz.

1.1. AZTERKETA KUANTITATIBOA

Inkesta egindako emakume guztientzat, galdeketa hautatu da informazioa jasotzeko tresna gisa. Galdeketa hori Udaleko II Berdintasun Planean kontuan hartzen diren zenbait interbentzio-eremuren oinarriaren gainean egituratu da. **44** itemek osatu zuten galdeketa.

15 eta 25 urte bitarteko Arrigorriagako neska gazteen **unibertsoaren lagina** hautatzeko metodoa *ausazko erakuskari estratifikatua* izan da, gazte hauen adinean eta bizilekuan oinarrituta:

- **Adina:**

- 15-19 urte

- 19-25 urte

- **Bizilekua:**

- Arrigorriagako herrigunean bizi diren neskak

- Abusuko alderdian bizi diren neskak

Lan egiterakoan, konfiantza-maila % 93 izan da, eta errakuntza-tartea, berriz, +- % 7, eta, hortaz, Arrigorriagan erroldatuta dauden 19-25 urte bitarteko 540 emakumetatik, **121 galdeketa** jaso dira.

Informazioa jasotzea:

Informazioa jasotzeko fasea da, dudarik gabe, era honetako ikerlanen zutabe garrantzitsuenetako bat, hain zuzen ere, teorikoa baino areago, oso eginkizun praktikoa delako.

Komeni da Arrigorriagako neska gazteen premien eta eskarien gaineko informaziora hurbiltzeak eta ondoren jasotzeak duen konplexutasuna azpimarratzea. Dudarik

gabe, aztertu beharreko biztanleriaren profilak eta gai honen berezitasunak ez du solaskideengana hurbiltzea erraztu.

Honako hau izan da informazioa biltzeko prozesua:

Arrigorriagan erroldatuta dauden 19-25 urte bitarteko emakumeen unibertso osoari bidali zitzaion galdeketa postaz, Arrigorriagako Udaleko aurkezpen-gutun batekin batera, azterlanaren helburua labur azalduz. Aldi berean, Arrigorriagako **Gaztegunearen web ofizialean** argitaratu zen, eta baita bertako *facebook*-en ere, azterlanaren aurkezpen labur batekin batera, eta posta elektronikoz bidaltzeko aukerarekin.

Azkenik, datu-bilketa osatzeko xedez, telefono bidez egin ziren galdeketak.

1.2. AZTERKETA KUALITATIBOA

Galdeketa bitartez egindako datu-bilketa, bi teknika kualitatiboren bidez osatu da:

1) Elkarrizketa erdi egituratua, emakumeak bizi diren udalerriaren errealitatea bere testuinguruan kokatzen laguntzeko erabilia. Prozedura horren bitartez, elkarrizketa egindako pertsonak ahoz adierazten du diagnostia egin nahi den egoeraz berak egiten duen definizio pertsonala. Horretarako, elkarrizketak egin zitzaizkien honako hauei:

- *Arrigorriagako Udaleko Gazteria saileko Teknikariari*
- *Arrigorriagako Udaleko Enplegu saileko Teknikariari*

2) Erabili den bigarren teknika kualitatiboa eztabaida-taldea edo talde fokala izan da, eta, horretarako, zenbait neska bildu ditugu beren iritziak eman ditzaten.

Eztabaida-talde hauek bestelako teknikek ezin eskaini dituzten ezagutza- eta analisi-teknikak eskaintzen dituzte.

Horretarako, gidoi/galdeketa bat osatu zen, aldaketaren batekin egituratua, eztabaida-talde bakoitzaren profilaren arabera. Hortaz, ahalik eta talderik heterogeneoenak antolatu ziren, zenbait aldagai soziodemografiko gogoan izanik, besteren artean adina (herrigunea eta Abusu), geografia-jatorria (emakume

etorkinak edo bertakoak), maila akademikoa, familia-betekizunak dituzten emakumeak izan ala ez, etab.

Horren bitartez, galdetegiko alderdi garrantzitsu batzuk sakondu ahal izan dira, iritzi subjektiboagoak bildu dira, genero-ikuspegitik Arrigorriagako neska gazteek dituzten premiei eta eskariei buruzko jarrerak jaso dira. Azken batean, modu sakonagoan analizatu dira eskuratutako laginaren banakako elementuak.

Guztira **4** eztabaida-talde egin dira, bakoitza 6-7 neskek osatua, eta kasu bakoitzean 90 minutuko iraupenarekin, gutxi gorabehera.

II. XEDEA ETA HELBURUAK

Helburu orokorrak:

- Arrigorriagako neska nerabe eta gazteen boteretzea sustatzea, udalerriko eta gizarteko jardueretan parte hartuz, genero-ikuspegitik abiatuta.
- Arrigorriagako neska nerabe eta gazteen premien ulerpena sakontzea, genero-ikuspegitik abiatuta, ikerketa-metodo parte-hartzaileak erabiliz.
- Premien diagnosi horretan oinarriturik, hobekuntza-ekimenak proposatzea.

Helburu zehatzak:

- Diagnosian definituriko ekimen-esparru bakoitzean, Arrigorriagako nerabeek eta gazteek zer premia nagusiri antzematen dioten analizatzea.
- Diagnosian definituriko ekimen-esparru bakoitzean, Arrigorriagako nerabeek eta gazteek zer premia ez dituzte halakotzat hartzen analizatzea, eta, aldi berean, zein diren premia horiek premia gisa ez hartzeko arrazoiak.
- Gazte-taldeak adieraz ditzakeen premia desberdinak analizatzea, adinaren eta bizilekuaren aldagaien arabera.
- Nerabeek eta gazteek antzeman gabeko premien atzean egon daitezkeen desberdintasun sorren existentzia balioztatzea, eta baita emakume horiengan maizenik agertzen diren desberdintasunezko egoerak ere.
- Arrigorriagako neska gazteen arteko berdintasunari buruzko eztabaida sortzea, haiengan desberdintasun-harremanak osatzeari aurrea hartzeko, eta haien boteretzea errazteko.

III. EMAKUME GAZTEEN PREMIAK ETA INTERESAK, ETA PREMIA HORIEK OSATZEKO XEDEA DUTEN BERDINTASUN-POLITIKAK

3.1. GENERO ETA ADINAREN IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Emakume gazteek historikoki bere ikusezintasunak ezaugarritu duten eta, azken batean, azterlan soziologikoetatik kanpo geratu den gizatalde bat osatzen dute.

Emakume gazteen errealitatea analizatzen jotzen da bai emakume helduen gaineko ikusmolde eta ikuspegietatik abiatuta, neska gazteen berezitasuna onartu gabe, bai gazteria sexurik gabe aurkezten duten baina berez gizonezkoen unibertsokoak diren ikuspegi teorikoak nagusiak diren ikusmoldeetan oinarrituta.

3.1.1. Interseksionalitatea

Era askotako diskriminazioei heltzen dien analisirako tresna bat da, eta ulertzen laguntzen du zer modutan eragiten dioten identitate desberdineko multzoek talde batek eskubide eta aukeretara izan dezakeen sarbideari.

Oinarrizko irizpidea da beraz eskubideen defentsan eta politika-ekimenen osaketan, nola gurutzatzen den generoa beste identitateekin (arrazarekin, klasearekin, adinarekin...) analizatzen baitu, eta orobat analizatzen du zer-nolako eragina duten interseksio eta lotura horiek eskubideak eta aukerak eskuratzerakoan, halako eran non emakume-talde jakin batzuk bereziki ahulak eta erasotzen errazak baitira diskriminazio- eta abusu-modu jakin batzuen aurrean. Esplicitzen saiatzen da nolako diskriminazio- eta desabantaila-motak sortzen diren identitateen konbinazioaren ondorioz, eta ez haien batuketaren ondorioz bakarrik; eta bizikidetzazko xede politiko baten alde lan egiten du, non diferentziak onartuko baitira baina ez desberdintasunak.

Bestalde, teoria politiko feministaren erdian dago gaur egun kontzeptu hau; jadanik laurogeiko hamarraldian hasi ziren, bai mugimendu feministek bai genero-berdintasuneko politika-ekimenek hainbat desberdintasunen interseksioan (arrazza, sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, adina etab.) dauden emakumeak bazter ditzaketela-eta, gai horien inguruko analisiak egiten. Analisi horiek indarberritu egin dira Crenshaw-en analititik aurrera (1991), zeinak azpimarratzen baitu desberdintasun jakin bat lantzen duten estrategiak oro har ez direla neutralak

izaten beste desberdintasunei begira. Hortaz, Crenshawen "intersezionalitate politikoa" kontzeptuak zenbait politika-ekimenek duten arriskua azpimarratzen du, zeinek, desberdintasun jakin batzuen tratua lehenetsiz, eta gogoan hartu gabe desberdintasunek askotan elkar osatzen dutela, azkenean pertsona jakin batzuk baztertzen eta taldeen arteko botere-mekanismoak berregiten baitituzte.

Analisi intersezionalaren proposamenaren arabera, helburua ez da talde jakin bat beste talde bat baino egoera okerragoan edo hobean dagoen erakustea, baizik eta diferentzia eta antzekotasun esanguratsuak zehaztea, diskriminazioak gainditu ahal izateko eta jende guztiak eskubide berak izan ditzaten baldintzak zertzeko xedeaz.

Diskriminazioaren oinarriak (arraza, generoa, etab.) lotzeko balio duen estrategia bat da, diskriminazioa elikatzen duen eta nagusitasunezko eta gutxiagotasunezko bizipenak egituratzen dituen ingurune sozial, ekonomiko, politiko eta legalarekin.

Horrez gainera, analisi intersezionala interbentzioan genero-justiziarako tresna eraginkorra izan dadin, beren identitate-sortako bizipenez eta posturez behar du elikatu, barnean sartuz emakume etorkinak, arraza desberdinekoak, adin desberdinekoak, sozialki baztertuak izateko arriskurik handiena dutenak... Politika ekonomikoek emakumeen gainean duten eraginari buruzko datu enpirikoak eta estatistikoak jasotzerakoan, esate baterako, funtsezkoa da sektore pobreenetako, beste talde etnikoetako eta identifikatu diren beste talde jakin batzuetako emakumeen bizipenak aztertzea.

Baliabideetara eta beren eskubideak gauzatzera sarbiderik okerrenea dutenen boteretzea sustatzeko baldintzak eraikitzea, eta pobretasunera eta bazterkeria sozialera daramaten prozesuak identifikatzea eta haien inguruan lan egitea, aurrerapauso garrantzitsuak izan daitezke haietatik abiatuta emaitza eraginkorrak eta konkretuak eskuratu ahal izateko, emakumeen eskubideen alorrean eta genero-berdintasunean.

Berdintasunaren teoria aurrera egiten ari da ikuspegi politikoen intersezionalitate handiago baten premiaren aldera, eta aldi berean erakundeetan ere aldaketak ari dira gertatzen desberdintasun ugariak gehiago gogoan hartzearen aldera. 1997ko Amsterdameko Ituneko 13. artikulua sarreratik hasita, Europar Batasunak zabaldu egin ditu diskriminazioaren kontra jarduteko dituen ahalmenak; sexu-diskriminazioaz gainera, gogoan hartzen dira arraza eta jatorri etnikoko diskriminazioa, elbarritasuna, adina, erlijioa edo sinestea eta orientazio sexuala.

Hori dela-eta, arraza-diskriminazioaren kontrako elkarte-zuzentzarauak hartu dira (2000/43/CE), sexu-orientazio, elbarritasun, adin, erlijio edo sinesteengatiko diskriminazioaren kontrakoak (2000/78/CE), estatu kideek gero beren araudi nazionaletara eraman eta inplementatu behar dituztenak.

Alabaina, interseksionalitatearen ikuspegitik aurrera egiten jarraitzeko, garrantzitsua izango litzateke herrialde guztietako araudietan eta konstituzioetan "kausa askoko diskriminazio" delakoari buruzko klausulak eranstea. Era horretan, espazio jakinak bideratuko dira mekanismo juridiko eta legislatibo jakinek modu sakonagoan landu dezaten beren bizitzan zenbait identitate gurutzatzen diren eta, horrexegatik, gutxiengotasun-egoeran dauden emakumeen diskriminazioa.

Honako analisi honetarako, bi ikuspegi konbinatzeko modua delakoan ulertu eta landuko dugu interseksionalitatea: **generoaren** ikuspegia eta **belaunaldiaren** ikuspegia, analizatzeko eta azaltzeko neska gazteek bizi dituzten diskriminazio eta desabantaila bereziak, gizonen taldearen ondoan desabantaila jakin batzuk pairatzen dituztelako ezaugarritzen den talde batekoak –emakumeen taldekoak– diren neurrian, eta egoera iragankorrean daudelako –gaztaroan–, zeina bizitzaren zikloan pasakorra delako ezaugarritzen baita.

3.1.2. Emakume gazteei zuzendutako analisisien eta politika-ekimenen mugak

Gizarte-politika publiko deritzanetan oso bakanak dira emakume gazteengana bideraturiko azterlanak eta diagnosiak. Gizarte-zientzien diziplinan izan badira ere, ikasketa-objektu gisa, emakume gazteak ageri diren azterlanak, presentzia hori ia bazterrekoa izan da, alde batetik, egindako azterlanak gutxi izan direlako, eta, bestetik, lantzerakoan erabili den ikuspegi-moduagatik. Emakume helduaren ikusmoldeetatik abiatuta egin dira beti analisisirik gehien-gehienak (emakume gazteen berezitasuna onartu gabe), edo gazteen ikusmoldeetatik abiatuta (esate baterako, gazteriaren gainean oro har halako aldizkakotasun batez argitaratzen diren plan edo azterlan desberdinak), zeinetan gizonezkoen unibertso ikuspegi teorikoak baitira nagusi.

90eko hamarraldian emakume gazteen gainean egin diren ikerketen ezaugarria izan da haien ulerpenari ikuspuntu bikoitz batetik heltzea: emakume gisa eta gazte gisa. Emakume gaztearen gaineko azterlanak ekoizpenaren, heziketaren, ugalketaren,

parte-hartzearen... munduan sartutako emakume gazteak balira bezala hasi ziren ulertzen. Koherentzia handiagoz, ondoko printzipio hauek hartu ziren:

- *Printzipio soziologikoa*: neska edo mutil gaztea eragile berezi bat delakoan.
- *Printzipio metodologiko* derrigorrezkoa gazteriaren gaineko azterlanetan: ontzat ematea nekez azter daitezkeela gazteen jokamoldeak ez badira erreferentzia gisa gogoan hartzen gizarte-bizitzaren *dimentsio sinbolikoak*, hau da, kulturarekin, talde-iruditeriarekin, komunikazioarekin eta abarrekin lotutako motibazioak.

Bestalde, 90eko hamarraldian, gazteriaren gaineko azterlan gehienek ezaugarri nagusia izan da ez direla eraikuntza teoriko baten gainean osatu, baizik eta erakunde publikoek eraikitako arazoetatik abiatuta, zeinaren adibide nagusia drogen eta alkoholaren kontsumoaren gaia baita, ia osorik gazteen munduari lotua. Ildo horretatik, emakumearen dimentsioaren analisisian, erakundeek zehaztapena askoz ere mugatuagoa da, bere sexualitatearekin lotutako gaietatik edo arazoetatik abiatuta bakarrik identifikatzen baita emakume gaztea, identifikazio-esparru bakarra hori izango balitz bezala. Horregatik, eragozpenak sortzen dira *emakume gaztea* subjektua identifikatzeko eta eraikitzeko garaian.

Emakume-dimentsioa gazte-ikuspegian: aurreko paragrafoetan adierazi da gazteriaren gaineko diagnosietan kasu gutxitan egiten dela genero-bereizketa; analisi guztien erreferentzia nagusia gizon gazteen parametrotik abiatzen da beti, analisiak eta ondorioak ondoren emakume gazteei aplikatzeko, emakume horiek beren analisi-kategoria ez balute bezala, emakumezko genero gisa. Horren adibide argia da *adinaren* aldagaia, dimentsio honen eraikuntzan lehendabizi gizonengan pentsatu baitzen, eta gero emakumeek beretu zuten. Beste adibide bat *irudi publiko* baten eraikuntzari dagokiona da: emakume gaztearen irudi hori ez dago, eta, batez ere, ez dago emakume gazteek berek sorturiko irudi publikorik. Hala, emakume gaztearen irudi publikoaren definizio baxu bat ematen da, gizonezko gazteekin gertatzen denaren kontra.

Ondorio gisa, eta gogoan hartzen badira sortu eta abian jarri diren tresna, programa edo plan ugariak, esan daiteke garrantzitsuak izan direla hainbat erakundeek egin dituzten eginahalak gazteriaren eremuan, gazteriak oro har dituen arazo desberdinen inguruan. Alabaina, gai honetan ibilbide luzea egin den arren eta baliabidea erruz inbertitu bada ere, ebaluazioak adierazten duenez ez zaio

ekarpenik egin gizon-emakume gazteen gizarteratzeari, eta askoz ere gutxiago emakume gazteenari. Beharrezkoa da, beraz, gazteriaren erakundetze honetan, emakume gazteei tratabide berezia eskaintzea, tratabide horrek generoaren dimentsioaren irakurketa egoki bat eta tresna egokiak abian jartzea inplikaturiko baitu.

3. 2. EMAKUME GAZTEEN PREMIAK IDENTIFIKATUZ

*Desira baten eta objektu baten arteko irudizko zubi bat da premia
(Jean Baudrillard)*

3.2.1. Premiak, interesak eta eskubideak: kontzeptu desberdinak, ikuspuntu desberdinak

Premiak kontzeptuaren definizioa ez da egitate aldaezina eta unibertuala, baizik eta, zer gizarte den, eta bestelako aldagaiekin batera (hala nola une historikoa, kultura, gizarte-klasea, adina edo generoa), gizarte edo testuinguru batean premiatzat hartzen denak, beste errealitate batean bestelako esanahi bat izango du.

Zentzurik zabalenean, eskasiako, faltako egoera bezala definitzen da **premia**, eta horri oinarritzko premia fisikoak erantsi behar zaizkio (elikagaia, jantziak, berotasuna, segurtasuna) eta nonbaitekoa izatearen eta txeraren gizarte-premiak. Alabaina, premien inguruko irakurketa hau zabaldu egin nahi da, ez gauza negatiboa delakoan, baizik eta premiak mugiarazten, konprometitzen duten faktore gisa ikusiz, zeinetan pertsonak (kasu honetan emakumeak) ez baitira izaki pasiboak, **eragile sozialak** baizik, beren banakako premiekin, ezagutzari eta norberaren adierazpenari dagokionez.

3.2.2. Emakumeen genero-premiak eta interesak

Premia batek eskasia-egoera izateari utzi eta faktore mugiarazlea bihurtu dadin beharrezkoa den baldintza, bereziki zaila gertatzen da emakume gazteen kasuan. Abiapuntua da *gaztaroa* kontzeptu ebolutiboa dela, igarokortasunak ezaugarritzen duena (nahiz eta gure gizartean, gero eta gehiago, ezaugarri hori luzatu egiten den denboran). Alabaina, baldintza hori dela-eta, zaila izaten da emakume gazteek bizi dutenaren kontzientzia argia hartzea eta beren bizipenak bere bizitzako ibilbidearen barruan txertatzea. Azken batean, gaztaroaren irudi soziala da proba-garai bat

dela, saiatzekoa, prestatzekoa... eta gero iristen dela *egiaz* emakumeen trebetasunak zabaltzen diren garaira, eta orduan agertuko direla argi haien premiak. Hori gaztaroen gertatzea, eskariak sortzea eta eskari horien alde mobilizatzea bereziki gauza zaila da.

Neska askok beren bizitza-kalitatea hobetuko duten ondasunen eta zerbitzuen hartzaile gisa ikusten dute beren burua, baina ez derrigor beren premietatik abiatuta eskariak eta aldarrikapenak osatu behar dituzten subjektu gisa. Hori bai, neska horien interesak kanpotik eta goitik definitzen dira (erakundeetatik), barrutik, norberaren kontzientziatik baino areago.

3.2.3. Nork definitzen ditu premiak?

Emakumeen premien eta interes komunen kontzeptua zabalegia da edozein analisi egiteko, "emakumeak" kategoria ez baita, berez, behar bezain baliagarria; kasu bakoitzean, beste adierazle sozialekin zehaztu behar da hitza, nola diren klasea (bitartekoa edo langilea), adina, egoera zibila, arraza, etab.

Emakumeen premiak aztertzerakoan, argi eduki behar dugu zein helburutara dauden zuzenduak eta analizatuak. Molyneaux eta Young-entzat (1991), baliagarriagoa da **premia praktikoez eta interes estrategikoez** hitz egitea:

Generoko premia praktikokoak emakumeei lanaren sexu-banaketa tradizionalaren arabera egozten zaizkien eginkizun jakinak bete beharraren ondoriozkoak dira: haurrak zaindu eta hazi, etxeaz arduratu, etab. Alabaina, Youngek zehazten du premia hauetako asko epe laburrekoak izaten direla, eta aldatu egin daitezkeela gizarte-klase desberdineko emakumeen arabera eta baita klase bereko emakumeen artean ere.

Premia horietako batzuk, ordea, *generoko interes estrategiko* gisa sailka daitezke. Interes horiek, premia praktikokoak ez bezala, ez dira emakumeek beren eginbehar tradizionalak betetzeko egiten dituzten eginahalen ondoriozkoak; aitzitik, sortu dira emakumeak konturatzen hasi direnean, gero eta argiago, gizonen nagusitasunaren antzinako egiturak ez direla herentzia genetikoaren ondoriozkoak, gizarte-inposizioak baizik, eta, hortaz, alda daitezkeenak.

Horren ondorioz, emakumeek gizartean betetzen duten lekua auzitan jartzen den unean agertu dira generoko interes estrategikoak. Nolanahi ere, egilearentzat

egoera konplexua egiten da, zeren, nahiz eta interes horiek izan herrialde batzuetan borrokaren abiapuntu nagusia, batasuna zaila baita eskuratzen. Gauza asko idatzi da gai honen inguruan, baina emakumeak hesi ideologiko batean bizi direlako, autoestima falta dutelako eta, batez, ere kontzientzia faltsu baten biktimak direlako ideiekin lotua dago azalpenik arruntena.

Youngek auzitan jartzen du emakume guztiak badakitela zein diren beren genero-interesak, edo, eta hau are zailagoa da, interes horiek lehen mailakotzat hartzea. Egilearen ustez, emakumeen taldeen kasurik gehienetan edo klase zanpatu baten kide gisa sortzen diren leialtasunak zanpatutako taldean zentratzen dira, edo ez dute genero-zapalkuntza azpimarratzen. Kasu askotan, taldean bildutako emakume hauek uste dute beharrezkoak direla zapalkuntzaren beste baldintzen aldaketak, genero-harremanen aldaketa bat posible izan baino lehen.

Emakumeek dauzkaten premien azterketan, zenbait eragozpen sortzen dira:

- Premia horiei lehentasuna eman beharraren eta premiak ordenatu beharraren arazoa dago, halako eran non haiei aurre egin beharraren efektua pilatu egiten baita. Premia batzuei lehentasuna emanaz eta aukera eginez, beste ekimenetarako balio izan dezaketen batzuei heltzeko, eransketa-prozesu batetik pilaketa-prozesu batera igarotzen da.
- Beste arazo bat ere bada, eta hura da epe laburreko eta epe luzeko premia, eta badira baita ere emakumeen posizioarekin lotuagoak dauden arazoak, egoerarekin baino gehiago; emakume gehienek beren berehalako premia praktikoak identifikatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, askoz ere gauza konplexuagoa da premia horietatik orokorregiak ez diren (gutxiesteko moduan) epe luzeko interesak identifikatzera igarotzea. Hala, esate baterako, premia gehienak, hala nola etxeko lanak, berez baitira saihestezinak eta errepikakorak, muga garrantzitsuak gertatzen dira emakumeek epe luzeko jomugak begiztatzeko izan dezaketen trebetasunari dagokionez.
- Azkenik, nagusia azpimarratu behar da emakumeek emakume gisa **mobilizatzea** dela Youngentzat lehentasuna, bai beren premia praktikoak identifikatzeko, bai beren generoko interes estrategikoetarako.

3. 3. EZAGUTZAZKO POLITIKAK ETA BIRBANAKETAKO POLITIKAK

Emakume gazteen premia eta interesei behar duten arreta emateko (*premia praktikoak eta generoko interes estrategikoak*, Youngen ikusmoldean) beharrezkoak dira honako hauek:

a) **Diferentziak ezagutzen eta balioesten dituzten politikak**, emakume gazteak ez baitira emakume helduak bezalakoak, ez gizon gazteak bezalakoak.

b) **Baliabideak, aukerak eta boterea modu zuzenago batean birbanatzera bideratutako politikak**, emakume gazteekin lana eginez, emakume helduen eta gizon gazteen kaltean.

Fraser-ek (1996), balio biko kontzeptu bat proposatzen du, *berdintasun sozialaren* eta *diferentziaren ezagutzaren* defentsaren alde egiten duten errebindikazioak bateratzen saiatzen dena. Egileak **ezagutzazko** politika kulturalak eta **birbanaketako** politika sozialak bateratzeko premia defendatzen du, gero eta maizago bi politika horiek elkar baztertzen duten alternatiba gisa aurkezten baitira.

Askotan gauza jakintzat ematen da birbanaketako politika klaseko bidegabekerietan zentratzen dela oso-osorik, eta identitate-politikak, berriz, generoko, sexualitateko eta arrazako bidegabekerietan zentratzen direla. Birbanaketako politikarentzat, berregituraketa politiko-ekonomikoa da bidegabekeriaren irtenbidea, horrek diru-sarreraren birbanaketa egitea ekarriko bailuke. Horri kontrajarrita, ezagutzaren politikarentzat, kultura-aldaketa da bidegabekeriaren irtenbidea. Bi joera politiko horiek, gainera, bidegabekeria pairatzen duten taldeen ikusmolde desberdinak dituzte.

Birbanaketaren politikarentzat, gizarte-klaseko kolektiboak dira bidegabekeriaren subjektu kolektiboak, eta ekonomikoki definitzen dira, **merkatuarekin** duten harremanaren arabera. Eta ekonomiaren nozioa zabaldu eta ordaindu gabeko lana ere hartzen duenean, generoak markatzen dituen taldeekin topo egiten dugu: era horretan, birbanaketaren politikarentzat, emakumeak bidegabekeria ekonomikoaren mende dagoen kolektibo bat dira. Aitzitik, ezagutzazko politikarentzat bidegabekeriaren biktimak diren kolektiboak ez dira ekoizpen-harremanen arabera definitzen, ezagutzazko harremanen arabera baizik. Ikusmolde

honetatik, aurrekoari kontrajarririk, generoa ez da ekonomikoki definitutako klase bat, kulturalki definitutako **estatus** bat baizik.

Fraser ikusmolde hori zuzentzen saiatzen da, argudiatuz bi politika horiek elkarren osagarriak izan daitezkeela eta osatu egin behar direla, generoko bidegabekeriaren nolakotasuna ulertzeko aldi berean banaketari eta ezagutzari arreta eman behar baitzaie: **generoa balio biko kolektibitate bat dela** dio, birbanaketa sozio-ekonomiko desegokia eta kultura-ezagutza eskasa pairatzen dituelako, eta era horretan bidegabekeria horiek, ez bata ez bestea, ez dira bestearen zeharkako ondorioa, baizik eta biak dira lehenak eta jatorrizkoak.

Generoa *bereizkuntza politiko-ekonomikoa* da, *estatus mailako bereizkuntza* izateaz gainera. Neurri horretan, berebat dator, klasearen antza baino areago, sexualitatearen antz handiagoa duten elementuez hornitua, eta horrek ezagutzaren arazora garamatza. Azkenik, ea bi aurpegiek (politiko-ekonomikoak eta kultura-baliozkoak) pisu bera ote duten galdetzen du egileak, baina, nolana ere, generoaren araberako bidegabekeriari dagokionez, funtsezkoa da bai ekonomia politikoan, bai estatusaren araberako ordenan gauzak aldatzea.

3.3.1. Emakume gazteak gizarte-talde aktibo gisa

Ikusi dugu lehen *emakume gaztea* subjektua eraikitzeak dituen eragozpenak, baina ahalegin honetan izan diren ikuspegi teoriko desberdinek eta egin diren saioek ikuspegi garrantzitsuak ekarri dituzte gazteekin eta gazteentzat politika-ekimenak maila desberdinetan osatzeko garaian.

Zentzu horretan, ekarpen nagusietako batzuk estrategiak sortzeaz mintzatzen zaizkigu, ondoko hauetara heltzeko:

Boteretzea: ikusmolde orokor batetik, boteretzea prozesu bat da zeinean botererik gabeko jendea bere egoeraren kontzientzia hartzera heldu eta kolektiboki antolatzen baita, zerbitzu publikoetarako edo garapenaren abantailletarako sarbide handiagoa lortu ahal izateko.

80ko hamarraldiaren erdialdetik, Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen erakundeek kontzeptu hau erabiltzen dute adierazteko garapenak emakumeek beren ahalmenak eta gizarte-talde gisa duten protagonismoa handitzeko baldintzak behar dituela bultzatu, gauza jakintzat emanez emakumeen boteretzeak sustraiko

aldaketak eskatzen dituela gizonen mendekoak izatearen posizioa berregiten duten prozesu eta egituretan.

Sarritan emakumeen parte-hartzearen edo antolatzearen sinonimo gisa erabiltzen bada ere, eta sarrera ekonomikoen lorpenarekin nahasten den arren, boteretzea emakumeen bizitzaren hainbat dimentsio hartzen dituen prozesu bat da (Murguialday eta Vázquez, 2008):

- Alor subjektiboan hasten da, aldaketak bultzatuz *emakume izatearen* ikusmoldeetan eta sinesteetan, emakumeen irudien eta sinboloen balioestean eta emakumeen kolektiboaren parte izateak ernatzen dituen sentimenduetan (*boteretze subjektibo eta kulturala*).
- Emakumeek bere gorputzen gainean autonomia eskuratzea eta beren sexualitatea eta ugalketa-ahalmena kontrolatzea bultzatzen du, eta baita baliabide ekonomikoetarako sarbidea eta haien kontrola izatea ere (*boteretze fisikoa eta ekonomikoa*).
- Aldaketa-prozesuak, banakakoak badira, ez dira nahikoak izango aldi berean ez badira emakumeen *ekimen kolektiboa* sustatzen duten neurriak hartzen (*boteretze fisikoa eta ekonomikoa*).
- Boteretzeko prozesuan emakumeek beren bizitza-egoera hobetzeko eta genero-harremanetan duten mendeko posizioa aldatzeko bideak aurkitzen dituzte, erakunde eta egitura sozialei aurre eginez (*boteretze politikoa*).

Emakume gazteen agentzia: funtsezko pausoa da emakumeak boterea har dezaten, beren premien, interesen eta eskubideen alde borrokatuz. "Agentzia" kontzeptua pertsona batek edo talde batek bere helburu propioak definitzeko eta eskuratzeko jarduteko duen ahalmenari dagokio. Agentzia askotan etxe barnean eta etxetik kanpo "erabakietan parte hartzearekin" identifikatzen bada ere, agentzia berebat adieraz daiteke hain nabarmenak ez diren formetan, esate baterako, norberaren interesen gaineko hausnarketan, haiek asetzeko bideak negoziatzeko ahalmenean edo norberaren xedeak murrizteko besteek egin ditzaketen saioren kontrako erresistentzian. Emakume gazteen kasuan, agentziak esan nahi du gogoan hartzen dela emakume gazteek berek izan behar dutela beren bizitzako aldaketaren protagonista.

Emakumeen asoziazionismoa: azken hamarraldiotan, emakumeen eta feministen mugimenduek eta erakundeek ahalegin handi bat egin dute zabalagoak izateko eta emakumeen esperientzien ugaritasun handia ordezkatzeko. Alabaina, gero eta gai eztabaidatuagoa ari da bihurtzen emakume gazteek emakumeen antolamendu-prozesuetan parte hartzeko espazioen sorrera, emakume gazteak antolatzekeo ahaleginak gehiago izan baitira mintzaldi-ekimenak errealitateak baino.

Eztabaida honetan, ideia bat sortu da, eta hura da, mugimenduak hazi eta aldatzen jarri dezaten, beharrezkoa dela mugimenduak berak berriz asmatzea. Zentzu horretan, baliabide garrantzitsuak dira mugimenduentzat gaurko gazte feministen bizitza- eta ikuspuntu-bizipenak, hauek berak berriz asmatzen saiatzen diren bitartean. Era horretan, emakume guztientzat garrantzitsuak izaten saiatzen dira, eta modu berri eta berritzaileetan erantzun nahi diete gizarte-mugimendu eta -erakundeek gaur aurrean dituzten erronkei. Aktibismoaren definizio malguagoak eta gaurkotuagoak erabiliz, eta parte hartzeko modu berriak esploratuz, belaunaldi gazteek lagun dezakete gizarte-mugimenduetan aurrera egiten jarraitzeko beharrezkoak diren baldintzak eta sormena eraikitzen.

Beharrezkoa da belaunaldi eta identitate desberdineko emakume guztiak parte hartzea denboran iraunkorrak izango diren mugimenduak eta erakundeak eraikitzekeo. Alabaina, helburu hori lortzeko, eragozpen batzuk sor daitezke:

- *Definizio tradizionalen mugak:* neska gazte askok aurre egin behar izan diete taldean denbora gehiago daramaten kide batzuen sinesteen ondorioz sortzen diren eragozpenei, beren parte-hartzea baldin aktibismo modu jakin batzuk betetzen badira bakarrik baliozkoa delakoan.
- *Gazteria-generoa intersekzioa ulertzeko premia:* mugimendu feministek eta emakumeen mugimenduek, badakiten arren generoko paper eta estereotipo tradizionalak emakume gazteen bizitzan dituzten inplikazioen berri, informazio mugatua dute gazteriaren **eraikuntza sozialak** neska gazteentzat dituen inplikazioei buruz. Berriz ere agertzen zaigu ideia bera, alegia, emakume gazteen definizioan funtsezkoa dela adin-taldearen definizioa baino harantzago joatea, eta era horretan hobeto ulertuko dira emakumeek aurrean dituzten premiak, ikuspegiak eta arazoak, eta horiek guztiak nola eragiten duten parte-hartzean.

- *Konpromiso-falta:* mugimendu feministetan edo emakumeen mugimenduetan ibilbide luzea duten emakumeen artean, sineste bat dago zabaldua, eta hura da mugimendu edo erakunde batean sartzen diren emakume gazteek ez dutela beti izaten aurrekoen suhartasun bera borrokarekin eta balioekin konprometitzeko. Argudio horri eusten dion arrazoietakoa bat da emakume gazte horietako askok ez dutela behar bezalako sarbiderik izan politikan eta aurreko hamarraldietako mugimendu feministen eta erakundearen lanaren parte nagusian.
- *Ezagutza-falta:* erakundeetan luzaroan egon diren militante feministen aldarrikapen errepikatu bat edo halako sentipen bat da emakume gazte asko ez direla konturatzen nolako garrantzia duten beren aurrekoek lortutako helburuak. Era berean, askotan gertatzen da emakume gazte askok ez dutela ezagutzen mugimendu feministen eta emakumeen mugimenduen ibilbidea, edota beren aurrekoek gizon-emakumeen arteko berdintasunean aurrera egiteko izan zituzten eragozpenak eta egin behar izan zuten lana.
- *Diskriminazioa eta estereotipoak:* kasu batzuetan, emakume gazteekin egindako lanak gazteriarri buruzko estereotipoak sendotzera jotzen du, eta horrek ez du batere errazten haien erabateko boteretzea. Zerikusia izan du horretan generoa/adina/belaunaldia harremanen analisi teorikoaren eta metodologikoaren faltak. Estereotipo batzuk sendotzerakoan, esate baterako, emakume gazteek ez dutela esperientziarik edo borroka politikoan interesik ez dutela, besteren artean, mintzaldi eta praktika diskriminatzaileak sendotzen dira, horien azpiko botere-harremanak sendotzeaz gainera.

IV. EMAITZEN DIAGNOSIA

Diagnosiaren emaitzen analisia barneratzeko, azterturiko biztanleriaren ezaugarriak aztertuz hasiko gara.

4. 1. EMAKUME GAZTEEN PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

Lehenik, eta eskuratutako emaitzen analisi osoagoa egiteari begira, azterlan honetan esku hartu duten profil SOZIODEMOGRAFIKOA erakusten da ondoren¹:

Adina	Guztira	%
15-18 urte bitarte	69	% 57
19-25 urte bitarte	51	% 42,1
Ed/Ee	1	% 0,8
Guztira	121	% 100


Bizilekua:	Guztira	%
Herrigunea	82	%67,8
Abusu	33	% 27,3
Ed/Ee	6	% 5
Guztira	121	% 100

Ikasketa mota	Guztira	%
Lehen mailakoak edo gutxiago	29	24,0
Bigarren mailakoak	62	51,2
Profesionalak	9	7,4
Ertainak-Goi mailakoak	8	6,6
Goi mailakoak-Lizentzia	10	8,3
Beste batzuk	1	0,8
Ed/Ee	2	1,7
Guztira	121	% 100

Profil honen emaitzak bat datoz biztanleriaren adinaren eta geografiaren arabera banaketarekin, eta orobat ikasketa motarekin, zeren, logikoa denez, parte-hartzaile gehienak, duten adinaren ondorioz, % 51,2 bigarren hezkuntzako ikasketak egiten ari da, eta % 24ak lehen mailako ikasketak ditu edo gutxiago.

¹ Metodologiaren atalean deskribaturiko galdeketa da taula eta azterketa-grafiko guztien iturria. Txostenaren irakurketa arintzeko asmoz, kasu guztietan agertuko behar lukeen testua ez erabiltzea erabaki da: "Iturria: geuk osatua, inkestaren emaitzetan oinarrituta".

1. grafikoa. Parte-hartzaileen lanbide-egoera




Berriz ere, eta biztanleriaren ezaugarriekin bat eginez, parte-hartzaileen % 75ek ikasten dihardutela huts-hutsik ikusten da. Udaleko Enpleguko teknikariak adierazten zuen bezala, *"unibertsitatera bideratzen diren neska gazteek alde batera uzten dute enpleguaren gaia"*.

Nesken adina dela-eta, 5 besterik ez dira (% 4,1) seme edo alabaren bat duten parte-hartzaileak. Haietatik, bakarra izan da (1) 2 haur dituela esan duena.

Egoera sentimentala eta egungo bizikidetzatza: parte-hartzaileen erdiak baino gehixeagok diote bikotekide egonkorra dutela. Parte-hartzaileen adina ez da gogoan hartu den adierazlea gai honen inguruan:


2. grafikoa. Parte-hartzaileen egungo egoera sentimentala



2 oharra: Ed/Ee= % 2,5

Oharra: Beste egoera bat: "Bikoteatu"

3. grafikoa. Parte-hartzaileen egungo bizikidetza



Ed/Ee = % 0,8

Emakume etorkinak: 121 parte-hartzaileetatik 11 (% 9) emakume etorkinak dira. Beren jatorrizko herriaren berri eman duten 6ek diotenez, hauek dira: Angola, Ginea Bissau, Letonia, Errumania eta Suitza (2 neska).

Emakume-elkarteren bateko kideak diren ala ez: 8 neska bakarrik (% 6,6) daude emakume-elkarteren batean sartuak.

Horren osagarri, emakume-elkarteren batean sartuak dauden 8 neskatatik, zuzena da adinaren arabera: 4 neska 15-19 urte bitartekoak dira, eta beste lauak 19-25 urte bitartekoak. Horietatik, bakarra da etorkina. 8 neskatatik, hiruk ondorengo elkarrekin kideak direla erantzun dute: *Bagabiltza*, *Kaledor Kayico* eta *Munduko Ametsak*.

4.1.1. Emakumeen premia orokorrak

Atal teorikoan azaldu dira jadanik emakume gazteek beren premiak identifika ditzaten dauden zailtasunak. Horregatik, hausnarketa hau errazteko, galdeketa honen hasieran esan zitzaizen, adierazpen-sail batean, aukera zitzatela gaur egun dituzten lehentasunak. 1 taulan ikusten ditugu emaitzak.

1 taula. Galdeketa egindako emakumeen gaur egungo lehentasun motak. Ehunekoak

	Lehentasunak	Ehunekoak
1	Nire bikotekidearekin, lagunekin, senideekin... denbora gehiago pasatu	% 52,1
2	Lanaren eremuan nire aukerak hobetuko dituen prestakuntza jaso.	% 50,4
3	Prestakuntza unibertsitariora, graduondokoetara... sarbide errazagoa izan.	% 47,1
4	Enplegu egonkorra izan	% 43,8
5	Kirola edo aire zabaleko jarduerak (txangoak...) egin	% 38,8
6	Euskara/gaztelaniaren ezagutza hobetu	% 35,5
7	Zer egin eta nola jokatu jakin nire bikotekidearen, bikotekide ohiaren, ezezagun baten... eraso baten aurrean	% 33,1
8	Nire premiei egokitzen zaien etxebizitza libre bat nahiz BOEkoa aurkitu	% 31,4
9	Emakume gazteen premia bereziei egokitutako osasun-zentroak izan, kontrazepzioari, sexu-osasunari eta abarri buruzko hitzaldiak ematen direna	% 24
10	Informazio gehiago eskuratu osasunaz, sexu bidez kutsatutako gaixotasunez, GIBz, kontrazepzio-metodoez...	% 23,1
11	Gehiago jakin sexualitateaz, bikote-harremanez, kontrazepzioaz...	% 19
12	Informazioa eskuragarri izan zer egin jakin ahal izateko baldin arazoak badaude alkoholaren, drogen eta abarren kontsumoarekin	% 17,4
13	Zenbait eratako erakunde/elkarteetan parte hartu (kultura, ingurumena, emakumeenak...)	% 15,7
14	Alokairuzko etxebizitza bat aurkitu	% 14
15	Emakume gazteentzako solasaldi eta lantegietan parte hartu (sexualitateaz, berdintasunaz, bikoteaz...)	% 10,7
16	Beste batzuk	% 1,6

$Ed/Ee=1$

Oharra: Beste batzuk = Kasu bakar batek zehaztu zuen "institutua bukatu".

Oso alde esanguratsua ez bada ere, 19-25 urte bitarteko neskek, 15-19 urte bitartekoek baino areago, beren lehentasunetako bat delakoan azpimarratu dute lanaren eremuan nire aukerak hobetuko dituen prestakuntza jaso.

Berebat da gauza guztiz logikoa 19-25 urte bitarteko neskek izatea gehiena azpimarratu dutenak beren lehentasunetako bat delakoan *beren premiei egokitzen zaien etxebizitza libre bat nahiz BOEkoa aurkitu*.

Ikertutako alor desberdinetan dauden premien identifikaziori helduz, ondoko emaitza hauek lortu ditugu:

4.2. OSASUNA, SEXUALITATEA ETA GIZARTE-INKLUSIOA

Politika publikoek urteak badaramatzate ere eginahalak egiten emakumeek baliabide ekonomiko, sozial eta kulturaletan sarbidea izan dezaten, oraindik ere bada egiturazko genero-desberdintasun bat. Errealitate horrek, beste zenbait faktoreekin batera, emakume gazteak egoera bereziki ahulean jartzen ditu, eta, zenbaitetan, era askotako diskriminazioen aurrean. Zentzu horretan, AEAKo Berdintasunaren Legean, 45. artikulua Gizarte Inklusioaren gainekoa da, hau da, bertan dioenez, euskal Administrazio Publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte emakumeen pobretasunaren eragin eta gizarte-bazterkeria handiagoaren kontra egiteko.

Horregatik, gizarte-inklusioa izan da Arrigorriagako emakume gazteen premiak, eskariak eta iritziak ezagutzeko landu nahi izan den gizartearen alorretako bat.

2 taula. Atalean identifikaturiko premiak

Premia motak	Adostasunik batere ez	Adostasun gutxi	Ez adostasunik ez desadostasunik	Ados	Guztiz ados	Ed/Ee
Osasun Zentroak Arrigorriagako neska gazteen premiei egokitu behar zaizkie	% 2,5	% 7,4	% 21,5	% 42,1	% 26,4	% 0
Neska gazteentzat egokituriko drogamendekotasun-zerbitzu bat eduki behar dugu	% 5	% 5,8	% 21,5	% 49,6	% 16,5	% 1,7
Udalak elbarritasun fisiko edo psikikoren	% 3,3	% 0,8	% 13,2	% 32,2	% 47,9	% 2,5

Premia motak	Adostasunik batere ez	Adostasun gutxi	Ez adostasunik ez desadostasunik	Ados	Gutziz ados	Ed/Ee
bat duten emakumeei sarbidea bermatu behar die						
Informazio eta prestakuntza gehiago behar da sexu-heziketaz .	% 3,3	% 6,6	% 30,6	% 38,8	% 19,8	% 0,8
Garrantzitsua da elikatzearen eta irudiaren inguruko nahasmenduaz informazioa izatea.	% 4,1	% 3,3	% 13,2	% 41,3	% 36,4	% 1,7
Informazio gehiago behar da desiratzen ez diren haurdunaldiei aurrea hartzeko moduez eta sexu bidez kutsatutako gaixotasunez	% 5,8	% 3,3	% 12,4	% 38,8	% 37,2	% 2,5

Emaitzak ikusirik, hipotesi gisa esan daiteke neskek sentiberatasun maila handia erakutsi dutela berezitasun bat duen kolektibo batekin, hau da, elbarritasun fisiko edo psikikoren bat duten emakumeekin, zeinek, elbarritasun horrexen ondorioz, eragozpen handiagoak izan baititzakete beren eskubideak asetzeko.

Beste talde baten ustez, oso garrantzitsua da elikaduraren nahasmenduez informazioa izatea (% 77 ados eta oso ados dago), eta baita desiratzen ez diren haurdunaldiei aurrea hartzeko moduez eta sexu bidez kutsatutako gaixotasunez ere (% 76).

Galdeketa egindako nesken adina gogoan hartzen bada, adostasun handiagoa ikusten da 19-25 urte bitarteko nesken artean koadroan ageri diren zerbitzuak abian jartzeari edo zerbitzuak oro har hobetzeari dagokionez. Bereziki esanguratsua da adin-tarte horretako neskek erakutsi duten adostasun maila, informazio gehiago

behar dela desiratzen ez diren haurdunaldiei aurrea hartzeko moduz eta sexu bidez kutsatutako gaixotasunez erantzuteko garaian.

Alabaina, alderdi hauek kezkatzen badituzte ere, ez zaie garrantzitsua iruditzen sexu-heziketa izatea, heren batek baino gehiagok gai honi buruzko definizio-falta erakusten baitute. Horrek esan nahi dezake, edota beren ustez badutela gai honi buruz, hainbat bidetatik eskuraturik, nahiko informazioa, edota uste dutela sexu-heziketa ez dagoela *arriskuekin* lotua.

Irudiaren inguruko nahasmenduek, desiratzen ez diren haurdunaldiek eta sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunek harreman zuzena dute emakume gazteen sexualitatearekin, eta baita beren buruaz duten irudiarekin ere. Alabaina, neskek ez dute hori horrela ikusten. Ez dakigu zehaztasunez zein diren arrazoibide hori ager dezaketen argudioak, baina gazteekin egindako lanaren esperientzian oinarrituta esan genezake neska hauek jasotzen duten sexu-heziketak ez duela generoko ikuspegirik, alegia, berdin diola neska batek edo mutil batek jasotzen duen, neskei ez baitzaie informazio egokia eman sexu-autonomiaren faltaren arriskuez edota beren harreman sexualak eta inguruko agindu estetikoak negoziatzeko trebetasunetan izan ditzaketen hutsunez.

Atal honetan, neskek *arazoak* ikusten dituzte (eskuragarritasunaren eta informazio baliotsuaren falta) baina arazo horiek ez dituzte bihurtzen sexu-heziketa hobe baten eskari, esate baterako.

2.1. Arrigorriagan diren haurtzaindegi-zerbitzuen balioespena

Parte-hartzaile askok, beren adinaren eta egoera pertsonalaren ondorioz, ez dituzte ezagutzen beren udalerrian dauden haurtzaindegi-zerbitzuak (% 74,4 batek ez dio galdera honi erantzun). Erantzun dutenen artean (31 emakume), % 54,8k zerbitzu hauek *onak* direlakoan balioesten ditu, eta % 25,8k *erregularrak* direlakoan.

4.3. HEZIKETA, ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA

Heziketan helarazten diren balioak, neska-mutilen jarrerak ikastetxeetan, unibertsitateko espezialitate eta karreretan neskek zer gutxitan hautatzen dituzten adar teknikoak eta okupazio-tasarik handienak dutenak etab., ezin baztertuzko errealitateak dira esku artean dugun bezalako diagnosi bat egiterakoan.

Beste alde batetik, enpleguaren analisiak emakume gazteen artean berez hartzen ditu ezaugarri bereziak, zeren, kasurik gehienetan, lehen enplegua izaten baita. Alabaina, enpleguko okupazio-tasa murriztagoak, emakumeen eta gizonen arteko soldata-diferentziak, emakumeek ezkutuko ekonomian duten presentzia altua edo sektore teknikoan duten presentzia eskasa, auzi horiek guztiak, aztertu beharreko biztanleriaren gaztetasunagatik ere, garrantzitsuak dira premien diagnosi bat egiterakoan.


Horrez gainera, etxebizitza da, enpleguarekin batera, emakume gazteen emantzipazio-prozesuaren elementu nagusietako bat. Zenbait azterlanek azpimarratzen dutenez, bi alderdi horiek dira –enplegua eta etxebizitza, ordena horretan– gazteria gaur egun gehiena larritzen eta kezkatzen dutenak.

4.3.1. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren pertzepzioa

Premiaren eraikuntzara egin zen lehen hurbilpena izan zen neskei galdetzea ea beren burua kolektibo berezi gisa ikusten duten, hau da, mutilen aldean bestelako tratu bat ematen zaiela sumatzen duten. Gure ustez, arazo orokorraren gainean (ez arazo partikularraren gainean bakarrik) oinarrituta kontzientzia hartuz, eraiki daiteke mobilizatzea merezi lezakeen interes bat.

Ikasten duten edo ikasi duten lekuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen edo diskriminazioen bati antzematen dioten edo antzeman dioten galdetu zitzaielarik, honako hauek izan ziren erantzunak:

4. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa prestakuntzan



% 60,3k adierazten duenez, ez dio inolako diskriminaziorik edo desberdintasunik antzeman emakumea izateagatik.


Parte-hartzaileen adinari begiratzen bazaio, erantzunak ez dira adierazgarriak, eta era berean ez da adierazgarria emakume-elkarte bateko bidea izatea. Alabaina, erantzunak ardura handiz irakurri behar dira, era honetako elkarte bateko kideak diren emakumeen erakuskaria oso txikia baita (8 neska).

Ikusten dugunez, kolektiboaren kontzientzia ez da gehiengoarena, baina kontzientzia hori dutenak, % 39,7, ehuneko garrantzitsua dira inondik ere, talde kritikoa izatera heldu daitekeena eta, diskriminazio-egoera bat ezagutzetik abiatuta, beren generoko premiak argiago identifikatzen dituen.

4.3.2. Prestakuntzaren alorrean antzemandako ezberdintasunen/diskriminazioen motak

Galdeketa egindako nesken artean, zeinek ikasten duten edo ikasi duten tokian zein izan diren desberdintasunezko edo diskriminaziozko egoera horiek erantzun baitute, ondoko hauek aipatzen dira:

5. grafikoa. Prestakuntzaren alorrean antzemandako desberdintasun-motak



Ikusten dugun bezala, azalpen sexistak dira, bai eskolakideenak, bai irakasleenak, jarrera diskriminatzaile gisa gehiena identifikatzen dena. Herriguneko 15 urteko neskek osatutako eztabaida-taldean, galdetu zitzaielarik iruditzen ote zitzaien desberdintasunak daudela heziketaren eta prestakuntzaren alorrean, hasieran ez zekiten oso ondo zer erantzun, baina gero esan zuten ikasgelako mutilak oro har oso lehiakorrek direla eta gelan "axolagabeak" eta "alferrak" direla, eta neskek berriz emaitza hobek dituztela, gehiago ikasten dutelako.

Neska gazteenen talde honetan bertan, galdetu ondoren zer espezialitate-adar ikasi behar zuen hurrengo urtean (DBHko 4.ean), pentsatzen al zuten ogibideak funtzioaren arabera zehazten direla, baietz erantzuten zuten, neskek ile-apaingintza, etxe barrenen diseinua eta halakoen aldera egiten baitute, nahiz eta salbuespen batzuk ikusten zituzten ogibidearen aukeran. Erantsi zuten dantzako eskoletara joaten diren mutilak, esate baterako, "gaizki ikusiak daudela", hau da, dantza maritxuena balitz bezala ikusten dela.

Kasurik gehienetan, moderatzaileek parte-hartzaileak bultzatzen zituztenean prestakuntzaren alorrean nesken eta mutilen arteko desberdintasunezko egoerak islatzen dituzten adibide batzuk ematera, neskek ez zuten erantzuten, beren inguruan halako egoerarik ez balego bezala; ikerketa-taldeak ikastetxeetako nesken eta mutilen arteko desberdintasunezko adibide arruntak aipatzen zituenean, neskek esaten zuten ezagutzen zutela hura, ikusi edo bizi izan zutela, baina ez zutela gauza diskriminatzaile gisa hartu. Adibide gisa, eta aho batez, mutilek espazio komunaren erabateko nagusitasuna zutela esan zuten. "*Horrela esanda, bai, konturatzen zara*". "*Jostatzen hasi eta patioaz jabetzen dira*". Alabaina, neska batek azpimarratu zuen nola "*parte bat patioaz jabetzen da eta besteak ez du ezer ere egiten hori eragozteko*". "*Neskak harria bota eta eskua gordetzen du eta mutilek ez, tontoak balira bezala*".

Era berean, onartzen zuten talde baten eta bestearen jokamoldeak desberdinak direla eta modu diferentean balioesten direla, nesken kalterako gehienetan. Mutilek ikasgelan arreta erakartzeko izaten duten premia azpimarratu zuten, neskek ez bezala, neskek ez baitute halakorik behar. "*Neska xeble bat baldin badago ikasgelan, ez da pozik izango*". Onartzen zuten eta ontzat ematen zuten ez nabarmentzearen eta arreta ez erakartzearen emakumeen estereotipoa.

Taldeetan adibideak aipatu ahala, neskek, beren garaian, diskriminatzailetzat jo ez zituzten pasadizoak gogoratzen zituzten. Parte-hartzaileetako batek, Zuzenbideko

ikaslea bera, aipatu zuen nola irakaslea gizonezkoa zenean, askoz ere arreta handiagoa ematen zieten mutilei neskei baino.


Alabaina, taldeetako parte-hartzaile guztiak ez ziren ados agertu prestakuntzaren alorreko diskriminaziozko egoera honekin, eta, hala, parte-hartzaile batzuek (denak 19 eta 25 urte bitartekoak) erantzun zuten neskak espazioko zoko eta bazter batean kokatzen badira, hala nahi dutelako izaten dela. Dena dela, onartu zuten ezen, espazio komuna erabili nahi izan dutenean, ikastetxeko patioa esate baterako, mutilek *"inbaditu egiten gaituzte, baina batez ere indartsuagoak direlako"*.

Erabakimenaren argudio hau defentsazko baliabide baten moduan ageri da indarrak baliokideak ez direnean. Deigarria da ordea nola desberdintasunaren balizko onespren hau biologiatik ekarritako argudioekin normaltzen den, era honetan: *"Normala da desberdintasuna izatea, ez garelako berdinak"*.

Desberdintasuna dirudienez ez baita arazo gisa ikusten, era berean ikertu zen zer mailatan den beren ustez prestakuntza handiagoa berdintasunaren auzian, eta emaitza gisa % 16,5 batek *Ez dakite/Ez dute erantzuten* aukeraren alde egin zuen. Bestalde, % 47,9 baten ustez, *ez da batere beharrezkoa, edo gutxi*, gai honen inguruko prestakuntza; alabaina, % 35,6 baten iritziz, *oso edo nahiko beharrezkoa* da.

Parte-hartzaileen adina gogoan hartzen baldin bada, harreman adierazgarri bat dago, 19-25 urte bitarteko neskak baitira gehienbat gai honen inguruko prestakuntza oso edo nahiko beharrezkotzat jotzen dutena. Halaxe seinalatzen du adin-tarte horretako % 49 batek; 15 eta 18 bitarteko urteetan, kopuru hori % 26 da.

6. grafikoa. Prestakuntzaren premia berdintasunaren alorrean



Ikasketa mailari begiratu, datuek adierazten dutenez, zenbat eta ikasketa gehiago izan neskek, orduan eta beharrezkoagoa ikusten dute prestakuntza emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean. Argi dago adierazle hau bat datorrela guztiz nesken adinarekin.

4.3.3. Generoaren alorraren inguruko kontzeptuen gaineko ezagutza maila

Berdintasunaren alorreko prestakuntza handiago baten premiaren gaineko ikuspuntua desberdina zela ikusirik, galdeketa bat egin zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko zenbait kontzepturi buruzko jakintzaren berri izateko.

3. taula. Generoaren alorraren inguruko kontzeptuen gaineko ezagutza maila

Kontzeptuak	Bai, nahikoa	Bai, zerbait	Ez, batere ez	Ed/Ee
Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren erabilera ez sexista	% 24,8	% 41,3	% 26,4	% 7,4
Berdintasunaren inguruko legeak (estatukoak eta autonomikoak)	% 19	% 52,1	% 20,7	% 8,3

Kontzeptuak	Bai, nahikoa	Bai, zerbait	Ez, batere ez	Ed/Ee
Udaleko Berdintasun Plana	% 4,1	% 34	% 53	% 9,1
Emakumeen boteretzea	% 4,1	% 27,3	% 60,3	% 8,3
Emakumeen kontrako indarkeria	% 52,1	% 39,7	% 1,7	% 6,6
Bateragarritasuna eta erantzukizun-kidetasuna	% 12,4	% 36,4	% 43,8	% 7,4
Ekimen eta diskriminazio positiboko neurriak	% 10,7	% 43	% 37,2	% 9,1

Elkarrizketatuek erantzun zuten kontzeptuak berak nahiko argi uzten duela zer den *emakumeen kontrako indarkeria*, Arrigorriagako neska gazteen artean ezagunena. Kasu honetan, nesken ezagutza hitza entzutea baino harantzago zihoan, eta arazoak sortzen dien kezka adierazi zuten.

Bestalde, azpimarratu behar da % 38,4k adierazten duela *zerbait edo nahikoa* ezagutzen duela Udalaren Berdintasun Plana, eta datu hori garrantzitsua da, gogoan hartzen bada hauxe dela udalaren eginkizunetan sartu den azkenetako lan-esparrua, eta neskek ez zutela, oro har, jarrera egokia hartzen berdintasunaren politikaren alde.

Adina kontuan hartuz gero, galdetegiaren bitartez berretsi da zenbat eta helduagoak izan elkarrizketatutako neskek, orduan eta ezaupide gehiago dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz: azpimarratu behar da, lehenik, 19-25 urte bitarteko adin-tartean, beste adin-tartearen aurrez aurre, *ahozko eta idatzizko hizkuntzaren erabilera ez sexista* kontzeptuaren ezaupidea, eta bigarren lekuan *emakumeen kontrako bortizkeria* kontzeptuaren ezaupidea.

Azkenik, herriguneko 19-25 urte bitarteko nesken artean, jarrera nahiko kritikoa agertu zen berdintasun-planak sortzeko eta ezartzeko, eta generoaren alorrean bestelako ekimen positiboak bideratzeko inbertsioaren inguruan.


Azpimarratu zuten nola, gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa dela-eta, biztanleriari ez zaiola gauza egokia irudituko aurrekontuak berdintasun-politikak ezartzera bideratzea, beste sail batzuetara bideratu ordez: "Nire ustez, askoz ere garrantzitsuagoa da Defentsaren Ministerio bat izatea Berdintasunaren Ministerio bat izatea baino". Moderatzaileetako batek, Berdintasunaren Ministerioaren eginkizun garrantzitsua parte-hartzaileei azaltzeko asmoz, azaldu zuen emakumeen kontrako indarkeria "terrorismo" ikusezin baten antzeko zerbait dela, urtean ezin konta ahala emakumeren heriotza dakarrena, eta horren aurrean erakunde horrek, baita gaur egun ere, zeregin handia duela. Ildo horretatik, parte-hartzaile batzuek berebat erantsi zuten hizkuntzaren erabilera berdintzailearen aldarrikapena "txorakeria bat" iruditzen zitzaiela, haien ustez bai baitaude arazo garrantzitsuagoak, esate baterako, bortizkeria matxistaren ondoriozko heriotzak desagerraraztea.

Ikusten denez, berdintasunera iristeko giza baliabideen eta baliabide materialen inbertsioaren gaia ez da ulertzen hasten esplikatzeko den arte, eta orduan ere zalantza bat geratzen da, alegia, neskek iritzia aldatuko ote duten.

4.3.4. Emakume gazteei hezkuntzan/prestakuntzan laguntzeko udal mailako neurriak

Azkenik, Arrigorriagako Udalak emakume gazteei hezkuntza/prestakuntzaren alorrean laguntzeko neurriak sustatu beharri buruzko galderari dagokionez, honako erantzun hauek bildu ziren:

7. grafikoa. Hezkuntzan/prestakuntzan udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia



Nesken %52,1ek pentsatzen du *mutilekin egiten den modu berean* zuzendu beharko litzaikeela neurri horiek neskei ere. Edonola ere, galdera hori dela-eta, neska zaharrenak izan dira (19 eta 25 urte bitartekoak), hain zuzen ere, udalak bereziki beraiei zuzendutako neurriak martxan jartzearen alde agertu direnak.

4.3.5. EMAKUMEENGANAKO DESBERDINTASUN/DISKRIMINAZIOAREN PERTZEPZIOA LANAREN EREMUAN

4. taula. Desberdintasunaren pertzepzioa lanaren eremuan. Guztira

Desberdintasun-maila	Guztira
Handia	4
Nahikoa	3
Txikia	8
Batere ez	29
Guztira	44

Galdera honi erantzun dioten 44 neskatatik 29k ez dute inolako desberdintasunik antzeman emakume izateagatik, ezta emakumeen kontrako inolako diskriminaziorik ere.

Oharra: Ed/Ee= 17 kasu, ezin ziurta daiteke horiek guztiak lanean dauden edo lan egin duten baina erantzun ez duten neskek direnik.


2. oharra= "ez dagokio" aukerako 60 kasu daude, hau da, inoiz lan egin ez duten neskek izango lirateke.

Neska gazteek lanaren eremuan esperientzia eskasa dutenez, ez da alor horretan premia berezirik antzeman, nahiz eta, iritzi horren aurrez aurre, aipagarria da eztabaida-talde batean parte hartu zuen 20 urteko errumaniar emakume baten lekukotasuna: *"Ez dut uste gauza askotan emakumeok gizonek dituzten eskubide berberak eduki behar ditugunik, ez nator bat"*, lanaren eremuari buruz ari zela, (...) eta *"Interesak daude, edo politika kontuak, emakumeek zein gizonek lan egin dezaten"* (...) *"Antzina, gizonezkoek lan egiten zuten, eta ondo zegoen"* gaur egun soldata bakar batekin ezin bizi dela eta emakumeak ere enplegu ordainduaren eremuan lan egitea beste "aukerarik" ez dagoela adierazteko.

Iritzi horrek babesik eduki ez bazuen ere, emakumeen lanak alde on baino alde txar gehiago dituela uste dutenen ikuspegiaren erakusgarri da.

4.3.6. LANAREN ETA ETXEBIZITZAREN EREMUAN ANTZEMANDAKO DESBERDINTASUNAK/DISKRIMINAZIOA

8. grafikoa. Lanaren alorrean antzemandako desberdintasun-motak



Oharra: galdeketa betetzeko orduan, "ez baduzu lanik egin edo orain ez bazaude lanean, ... galderara joan" adierazten bazen ere, zenbait neskek, hasierako ezaugarri soziodemografikoen atalean aukera hori hartuta ere, bete egin dute atal hori. Ez dagoenez argi nork lan egin duen eta nork ez, ikerketan parte hartu duten guztien ehunekoa kalkulatzea erabaki da.

Ikerketan parte hartu duten eta lanean diharduten edo aurretik lan egin duten emakumeen artean ez dago lanean *sexu-jazarpena* jasan duenik. Parte-hartzaileen %6,6k (8 neska) *erantzukizuneko karguetan emakume baino gizon gehiago daudela* sumatu du.

Litekeena da, halaber, adina kontuan hartuta, neska horiek egin dituzten lanak prekarioak izatea (besteak beste, ostalaritzako lanak, banatzaileak...), eta hori berdin-berdin gertatzen da gizonetzkoen artean zein emakumezkoen artean.

Adin-tarte handieneko neskek osatzen duten taldeak, eta ondorioz, zenbaitetan lanaren munduan esperientzia izan duten nesken taldeak, argi ikusten du alor horretan tratua ez dela berdina emakumeentzat eta gizonentzat; are gehiago, parte-hartzailearen batek aitortu zuen berak diskriminazioa jasan zuela emakumea izateagatik. *"Taberna batean, gaez lan egiteko, nahiago dute gizonetzko bat hartu, emakumezko bat hartu baino"*. Neska horrek berak emandako arrazoiaren arabera, enpresaburuei segurtasunik eza sortzen die emakume bat hartzeak, edozein arazori aurre egiteko emakumeak *"zaugarriagoak"* baitira. *"Nahiz eta, beharbada, emakume batek gizon batek baino indar handiagoa duen"*.

Ikasketen hautaketarekin gertatu bezala, lan batzuk feminizatuta daudela eta beste batzuk maskulinizatuta daudela adierazi zuten. Adibide modura aipatu zuten, gizonezkoek ez dutela, esaterako, saltzaile gisa arropa-denda batean lan egin nahi. Emakumetutako lan-mota dela pentsatzen dute.

Parte-hartzaileek izan dituzten esperientzien arabera, lan-elkarrizketatan egin dizkieten galdera-motak kontuan hartuta, desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela adierazi zuten. *"Seme-alabak edukitzeko asmoa duzun galdetzea izugarria da". "Haurdun bazaude edo seme-alabak badituzu, ez zaituzte hartzen."*

5. taula. Enpleguaren alorrean udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritziak. Guztira


Garrantzi-maila	Guztira
Handia	19
Nahikoa	31
Txikia	4
Batere ez	1
Guztira	55

Oharra: Ez dira kontuan hartu Ed/Ee erantzunak, inoiz lan egin ez duten zenbait neskek erantzun baitiote galderari, Ed/Ee aukeran zenbatu beharrean. Erantzun duten nesken artean osatu dira ehunekoak.

Berriro ere, taulan ikus daitekeen bezala, zenbaki absolutuak eskasak dira, gutxi baitira lanean ari diren edo lan egin duten neskek, eta, ondorioz, galderari erantzun diotenak. Edonola ere, galdera honi erantzun dioten nesken %91k uste du garrantzi handikoa dela edo nahiko garrantzitsua dela udalean enplegua sustatzeko politika ezartzea.

19 eta 25 urte bitarteko neskek osatutako eztabaida-taldean (hau da, horietako batzuk bazuten lan-esperientzia) galdetu zitzaizenean Arrigorriagako Udalaren aldetik emakumeak ikasketa teknikoagoetara jo dezaten bultzatu behar ote zen, enplegarritasun handiagoa dutelako, edo emakumeentzako Ekintza Positiboko neurriak hartu behar ote ziren, gauza gutxi egin zitekeela adierazi zuten, izan ere, ikastaroak eginagatik ere, emakumeek eta gizonezkoek ez dituzte "gustu" berdinak.


9. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa etxebizitza erosteko/alokatzeko



Lenenik, argitu denarra dago gai horri lotuta oso erantzun gutxi izortu direla, ikerketan parte hartu duten neska gazteak izanik, horietako gutxi aritu baitira etxebizitza bat erosteko edo alokatzekotan.

Aurretik pentsatu bezala, parte-hartzaileen %43k erantzun du ez dela inoiz etxebizitza bat erosi edo alokatzen saiatu, BOEkoa izan edo ez.

10. grafikoa. Etxebizitzaren alorrean udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritziak.



Galdetu zitzaielarik Gobernuak emakume gazteei etxebizitza erosteko-alokatzeko laguntzak sustatu behar zituen, % 54,5ek *mutilekin egiten den moduan* egin behar zuela erantzun zuen; hala ere, % 28k uste du neurri bereziak hartu behar direla alor horretan.

Egiaztatu dugunez, enpleguaren eta etxebizitzaren alorrean, gazteriak ez du premia argirik onartzeko aukera ematen; horrekin batera, kontuan hartu behar da gazteek alor horretan ez dutela diskriminazioa dagoenik adierazten. Neska zaharrenei eta, hortaz, gaiak kezka gehien dutenei garrantzizkoa iruditzen zaie udaletik gai horri buruzko politika bideratzea, nahiz eta ez duten antzematen politika zehatz baten premiarik.

4.4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Emakumeen eta gizonen arteko aurrerabideari dagokionez, bada ezin saihesti den bide bat, hain zuzen ere, boterearen eta parte-hartzearen banaketa orekatuagoarekin zerikusia duena. Estrategia zabal horretan, ezinbestekoa da genero-harremanen berregite sozialaren bitartez iristea emakumeak boterera; emakumeen autonomiatik (ekonomikoa, politikoa, sozio-kulturala) eta herritartasun osotik abiatuta hartzen delarik boterea. Izan ere, Emakumearentzako Nazio Batuen Txostenaren (Unifem) arabera, emakumeek erabaki-organoetan duten parte-hartzea da herrialde baten pobrezia araberak aldatzen ez den desberdintasun-adierazle bakarra.


Emakumeek banakako zein taldeko kontzientzia hartzeko prozesu horretan, Arrigorriagako emakume gazteek parte-hartze sozialari eta politikoari buruz duten pertzepzioa aztertu nahi izan da, eta orobat aztertu nahi izan da beren errealitate hurbilenean, hau da, beren udalerrian, duten posizioa eta autonomia.

4.4.1. Emakumeenganako desberdintasun/diskriminazioaren pertzepzioa politikan/gizartean

% 35,5ek desberdintasun nahikoa hautematen du bi sexuen artean, parte-hartze soziopolitikoari dagokionez.


Gai horretan, aipagarria da Abusu inguruko neskek direla politikaren eta gizartearen alorrean desberdintasun gehien antzematen dituztenak. Eremu horretako parte-hartzaileen % 63,6k uste du desberdintasun handia edo nahikoa dagoela; aldiz, Herrigunekoen % 47,6 baino ez da iritzi berekoa.

11. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa parte-hartze soziopolitikoan



4.4.2. Alor soziopolitikoan/herritartasunari dagokionean antzemandako desberdintasun-motak


12. grafikoa. Alor soziopolitikoan antzemandako desberdintasun-motak



Oharra: "Beste batzuk" aukeran, Elizan dauden desberdintasunak aipatu ziren, eta bi neskek aipatu zuten, halaber, gizonezkoek emakumezkoek baino soldata handiagoak dituztela; lanaren alorrean ere gai hori bera aipatu zen.

Grafikoak adierazten du Arrigorriagako neska gazteentzat, enpresen baitan, gizonezko gehiago daudela erantzukizun edo aginpide handieneko karguetan, eta horixe da desberdintasunaren adierazle argiena alor soziopolitikoan eta herritarren parte-hartzeari dagokionean. Eta hori adierazi zuen parte-hartzaileen % 48,8k.


13. grafikoa. Udalerrian, arlo politikoan eta gizarte-arloan neskek parte-hartze handiagoa izateko premia



Emakume gazteek Arrigorriagako alor politikoan eta sozialean parte-hartze handiagoa behar zuten galdetu zitzaielarik, parte-hartzaileen % 37,2k adierazi zuen nahiko beharrezkoa zela. Aipagarria da, halaber, Ed/Ee aukeraren ehuneko handia: % 28,1.

Zehazki, parte-hartzaileen iritzien arabera, honako eremu hauetan eduki beharko lukete emakume gazteek parte-hartze handiagoa:

14. grafikoa. Udaleko emakume gazteek zer alorretan eduki beharko luketen parte-hartze aktiboagoa




Nesken % 41,3k pentsatzen du kirolean eduki beharko luketela emakumeek parte-hartze handiagoa; adierazle hori erabat bat dator haien ustez eremu horretan dagoen benetako parte-hartze txikiarekin. Ildo horretatik, Arrigorriagako Udalaren Berdintasun Sailak 2007an egindako Kirolaren diagnostikoan baieztatzen zen 12 urtetik gorako udalerriko neskontzat apenas dagoela kirol-eskaintzarik eskolaren eremuan. Adin horretako mutil gehienak kirol-klub batean federatuta daude; neskak, aldiz, Arrigorriagako kiroldegira edo hurbileko udalerrietako kiroldegietara joaten dira, edo, bestela, utzi egiten diote kirola egiteari, horixe izanik gehienetan gertatzen dena.

Adinaren araberrako azterketa eginez gero, aldeak gutxienekoak dira, salbuespen bakarrarekin: neska zaharreneen ustez, emakume gazteek *parte-hartze politiko* handiagoa eduki beharko lukete udalerrian.

Arrigorriagan emakume gazteen elkarte batean parte hartzeko interes-maila: ikerketako parte-hartzaile guztien artean, % 28k interes *handia edo nahikoa* du, era horretako elkarte batean parte hartzeko. % 41,32k ez dio galderari erantzun, eta adina ez da aldagai erabakigarria izan lortutako erantzunei dagokienez.

15. grafikoa. Parte-hartze sozio-politikoari dagokionez, udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia



Hainbat esku-hartze eremutan abian jarri beharreko beste neurriekin gertatu bezala, honako aukera hau izan da erantzun gehien izan dituen: *Mutilekin egiten den modu berean*, emaitzen % 43.

Edonola ere, era horretako neurriak abian jartzeari buruzko balorazioari dagokionez, udal mailan neurriak abian jartzeari buruz aurretik egindako galderetan baino handiagoa izan da baiezko erantzunen ehunekoa. Horren arrazoietakoa bat izan liteke parte-hartzaileak, galdeketaren puntu honetara iritsita, denbora gehiago daramatela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz "gogoeta" egiten. Beste arrazoietakoa bat izan liteke, halaber, alor sozio-politikoan gertatzen diren desberdintasunak agerikoagoak direla neska gazteentzat.

4.5. AISIA, KIROLA ETA DENBORA LIBREA

Neskek eta mutilek ez dute denbora librearen pertzepzio bera, ezta erabilera bera ere; eta ez bakarrik guztiz subjektiboa delako, baizik eta eguneroko bizitzan ez dituztelako alor horiek berdin erabiltzen eta bizitzen.

Ildo horretatik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko erronkaren baitan, kirol-jardunari buruzkoa da kezka nagusietako bat, horixe baita, tradizioaren arabera, nesken eta mutilen jokabidea bereizten dituen mugarrietako bat. Eta hori dela eta, bi gaiari buruzko gogoeta sortu da: emakumeak kirolen mundura sartzeko oztoporik baden, edo 16-17 urteko neskek, mutilek ez bezala, kirola egiteari bat-batean zergatik uzten dioten.

Hala ere, kirolarekin gertatzen denaren guztiz bestela, emakumeek parte-hartze handiagoa dute, oro har, kultur jardueretan (irakurketa, esate baterako). Aisiaren eta denbora librearen erabilerari dagokionez sexuen artean sortzen diren

desberdintasun horiek hezkuntzaren eta gizarte-sistema patriarkalaren bitartez baino ezin dira azaldu, hau da, nesken eta mutilen jokabide desberdinen oinarrian dauden balioen bitartez.

Emakume gazteek, Arrigorriagan, kirolaren alorrean parte-hartze handiagoa eduki behar zuten galdetu zitzaielarik, neska kirolarien taldeko parte-hartzaileek baietz erantzun zuten, aho batez; ikusten baitzuten parte-hartzea eskasa zela, eta, nerabegarora iristean, neskek kirola bazterrera uzten zutela. *“15 urte inguruan, nik ez dut gehiago jarraitu nahi, igandetan jokatzera baino nahiago dut festan edo dena delakoan jardutea”.*

Errealitate horren zergatia azaltzeko arrazoiei dagokienez, aipatu beharra dago neska horietako askori gurasoek ematen zietela izena kirol jakin batean jarduteko, eta ondorioz, erabakiak beren kabuz hartzeko adinera iristean, erabat uztea erabakitzen dute. Egon liteke, ordea, beste arrazoi bat: neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diete ikasketei, eta ondorioz, bi gauza horien artean hautatu behar izaten dute. Hala ere, parte-hartzaile kirolariek onartu dute bi gauzak uztartu ahal izan dituztela.

Familiaren babesari dagokionez, zenbait parte-hartzailek onartu dute etxean ez dietela babesik eman, esate baterako, futbola edo taekwondoa egitea erabaki dutenean, etxean oso kirol maskulinizatutzat baitituzte, eta beste kirol mota bat egiteko aholkua eman dietela. Edonola ere, parte-hartzaile bakar batek ere ez du kirolaren eremuan emakume izateagatik diskriminaziorik hauteman.

6 taula. Atal honetan identifikaturiko premiak

Premia-motak	Adostasunik batere ez	Adostasun gutxi	Ez adostasunik ez desadostasunik	Nahiko ados	Erabat ados	Ed/Ee
Udalerrian nahiko gune daude denbora librerako	% 13,2	% 25,6	% 22,3	% 32,2	% 5	% 1,7
Udalerrian nahiko gune daude interesatzen	% 5	% 21,5	% 31,4	% 34,7	% 6,6	% 0,8

Premia-motak	Adostasunik batere ez	Adostasun gutxi	Ez adostasunik ez desadostasunik	Nahiko ados	Erabat ados	Ed/Ee
zaidan kirola egiteko						
Emakume gazteek gizon gazteek adinako babesak dute kirola egiteko	% 11,6	% 26,4	% 32,2	% 22,3	% 6,6	% 0,8
Arrigorriagako Udalak behar beste babesak ditu emakumeen elkarteak	% 2,5	% 10,7	% 55,4	% 21,5	% 1,7	% 8,3
Udalak behar adina jarduera kultural, jaialdi... antolatzen ditu neska gazteentzat	% 17,4	% 22,3	% 36,4	% 14,9	% 4,1	% 4,1

Parte-hartzaileen % 41,3k adierazi duenez, *nahiko ados edo erabat ados* daude udalerrian interesatzen zaien kirola egiteko behar adina **gune** daudela dion baieztapenarekin. % 38 ez dago *oso ados* edo *ez dago batere ados* emakume gazteek eta gizon gazteek **kirola** egiteko **babes** berdina dutela dioen baieztapenarekin.

Bizilekuaren araberako azterketa eginez gero, Abusu ingurukoek, Arrigorriagako herrigunekoek baino areago, udalerrian denbora librerako behar adina gune badaudela adierazi dute.

Bestalde, kirola egiten duten Arrigorriagako emakumez osatutako eztabaidataldean, emakume gazteek kirolean parte har dezaten Udalak behar adinako

sustapen-lana egiten duen galdetu zaielarik, oro har, ez zekiten zer erantzun; hala ere, parte-hartzaileetako batek erantzun zuen hainbat gauza egin zitezkeela, hala nola taldeak osatu, kirola egitera bultzatu, udalerrian zer kirol egiteko aukera dagoen ezagutzera eman, etab.

Bestalde, adierazi zuten Arrigorriagan denbora librerako eta aisiarako dauden guneak ez direla nahikoak, *Gaztegunea* baino ez dagoela, eta, azken boladan, oso jende gaztea egoten dela. Ikerketa-taldeari azaldu ziotenez, gaur egun Arrigorriagako gazte jendeak lonjatan igarotzen du denbora libre, eta koadrilek alokatu ohi dituzte halakoak. Horien funtzionamenduari dagokionez, gehienak mistoak direla azaldu zuten; hala ere, lehenik mutilek alokatu izan badituzte ere, poliki-poliki neskak ere sartzen joan dira, haien bikotekide gisa.

4.5.1. Emakumeenganako desberdintasun edo diskriminazioaren pertzepzioa denbora librean/aisian

Denbora librean eta aisian (esate baterako, Jai Batzordean, kirol elkarte batean...) emakume izateagatik beren burua diskriminatuta sentitu duten galderari dagokionez, **% 70,2k** ezetz erantzun du. Bereziki aipagarria da Abusuko zenbateko parte-hartzaile kopuruak erantzun dion ezetz galdera horri.

Parte-hartzaileen adinari erreparatuz gero, aipagarria da gazteenen artean galdera horri *Ed/Ee* erantzun diotenen kopurua. Gainera, 19 urtetik 25 urtera bitartekoak izan dira beren burua denbora librean eta/edo kirolaren alorrean diskriminatuta sentitu ez dutela gehien erantzun dutenak: % 80,4k horrela erantzun du, 15-19 adin-tartekoen artean, aldiz, % 63,8k.

Kirola egiten duten emakumeek osatutako eztabaida-taldeko parte-hartzaile batzuk adierazi zutenez, gaur egun garrantzi handiagoa ematen zaie, oraindik ere, mutilek egiten dituzten kirolei, esate baterako mutilek jokatutako futbolari.

Parte-hartzaileek zer leku/egoeratan sentitu duten beren burua diskriminatuta emakume izateagatik

Kirol elkarte batean	% 8,3
Jai Batzordean	% 3,3
Denbora libreko elkarte batean edo elkarte kultural batean	% 3,3
Beste batzuk	% 1,7

Beste leku edo egoera batzuk aukerari dagokionez, parte-hartzaileetako batek honako egoera hau azaldu zuen: *“Karatea egiten nuen Basauriko elkarte batean eta Espainiako txapeldun izan nintzen; ona nintzenez eta asko irabazten nuen, niri gehiago erakusteari utzi zioten eta elkarteak utzi egin behar izan nuen”.*


4.6. HARREMAN PERTSONALAK (Familia, adiskideak, bikotea)

Azken urteotan, aldaketa handiak gertatu dira familia-ereduei eta bizikidetzamoduei dagokienez. Gizonen eta emakumeen arteko harremanetan, aldaketak gertatu dira, bilakatu egin dira, etxearen eremuan, lagunaren artean eta bikotekidearen artean; horrez gainera, malgutu egin dira, poliki-poliki, sexu bakoitzari egokitutako rolak. Hala eta guztiz ere, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia horretan, gizartearen egitura bera eta tradizioz barneratutako balioak oztopo handia dira emakumeen eta gizonen artean berdintasuneko harreman-eredu berri bat ezartzeko.

Hain zuzen ere, Arrigorriagako neskek familia-, adiskidetasun- eta bikote-harremanetan desberdintasunaren zer pertzepzio duten aztertzea da diagnostiko honen helburuetako bat, eta orobat aztertzea neska horiek berek zer zailtasun topatzen dituzten beren harreman afektiboak eta hezkuntzaren eremua eta, zenbaitetan lanaren eremua, bateratzeko orduan.

4.6.1. Emakumeenganako desberdintasun/diskriminazioaren pertzepzioa harreman afektiboetan/adiskidetasunezkoetan

16. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa harreman pertsonaletan




Grafikoak azaltzen duenez, neska parte-hartzaileen % 13,3k uste du desberdintasun *nahikoa* edo *handia* dagoela harreman pertsonaletan. Nesken % 45,4k pentsatzen du ez dagoela inolako desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean edo emakumeenganako inolako diskriminaziorik beren familian, lagunaren artean, bikotean...

Parte-hartzaileen adina kontuan hartuz gero, honako joera hau hauteman dugu: neskak zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da desberdintasunaren pertzepzioa.

4.6.2. Harreman afektiboetan/adiskidetasunezkoetan hautemandako desberdintasun/diskriminazio-mota

17. grafikoa. Harreman pertsonaletan hautemandako desberdintasun-motak




Emakumeen -kasu honetan, parte-hartzaileen amen- "lanaldi bikoitza" da parte-hartzaileek beren etxeetan gizonezkoen (aiten) aurrez aurre hautematen duten desberdintasun nabarmenena.

Taldeetako parte-hartzaileetako batzuk azpimarratu zuten familiaren alorrean emakumeen eta gizonen arteko tratu-desberdintasuna familiaren eta helarazten diren balioen arabera zela; beraz, zehaztu egin beharko litzateke desberdintasun hori familiaren alorrean.

Bikote-harremanen kasuan, zenbait neskek adierazi zuten, bikotean sortzen den kontrola alde bikoia da ("*beti dago kontrol handixeagoa mutilen aldetik, baina neskek ere egiten dute*"); hala ere, zehaztu zuten mutilek kontrol zorrotzagoa egiten zutelako neskei (janzteko modua kritikatu, neskalagunari etengabe telefonoz deitu non dagoen jakiteko, debekatu egiten diete zenbait lekutara joatea...). Kontrol horren arrazoiek, nesken ustez, zerikusia dute mutilek duten beldurrarekin, besteak beste, "*makilakada bat hartzeko*" beldurrarekin, hau da, neska beste mutil batekin joateko beldurrarekin, neska beren jabetzakoa dela uste izatearekin edo, besterik gabe, "*ohiturarekin*". Edonola ere, haien ustez, era horretako egoerak ez dira maiz sortzen jende gaztearen artean. Nesken iritziz, neska batek ikusten duenean bikotekideak era horretara kontrolatzen duela, hura uzteko erabakia hartzen du, bi aldiz pentsatu gabe.

18. grafikoa. Harreman pertsonalen eremuan udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia



Arrigorriagako Udalak emakume gazteei familia-harremanetan, adiskidetasunezkoetan, bikote-harremanetan... laguntzeko neurriren bat sustatu beharko lukeen galdetu zitzaielarik (esate baterako, prestakuntza sustatu, webgune bat sortu, sexualitateari buruzko aholkularitza-bulego bat jarri...), parte-hartzaileen % 43,8k erantzun zuen *mutilekin bezala* jardun behar zuela Udalak, hau da, ez zuten uste alor horretan berariazko premiarik zutenik. Edonola ere, emaitza hori baiezeko erantzunekin konparatuz gero, alde handia dago emaitzen artean.

Berdintasun hori bi arrazoiren ondorioa izan daiteke, batetik, parte-hartzaileek galdeketa bete bitartean gogoeta-prozesu batean jardun dutelako, eta bestetik, desberdintasun handiagoak hautematen dituztelako harreman afektiboen eremuan, eta ondorioz, uste dutelako babes-neurriak horietara zuzendu behar direla.

Gai horri dagokionez, adina aldagai erabakigarria izan da, izan ere, neskak zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta adostasun handiagoa agertzen dute harreman afektiboen eremuan emakumeei zuzendutako neurriak bultzatzearekin. 19-25 urteko nesken % 54,9k hala adierazi du; 15-19 urtekoen artean, aldiz, adostasuna % 33,3koa izan da. Ildo horretatik, neska gazteenen artean nabarmenagoa izan da neurri horiek mutilei zuzentzen zaien modu berean zuzendu beharko liritekeela uste dutenen ehunekoak.

4.6.3. Arrigorriagako neska gazteek harreman pertsonalen alorrean dituzten arazo nagusiak

Galdeketaren puntu honetan, harreman pertsonalen alorrari dagokionez, hala nola, familiaren, lagunen eta bikotearen alorrari dagokionez, harreman afektiboen hiru maila horietan zituzten bi arazo nagusiak azaltzeko eskatu zitzairen. Galdera horri parte-hartzaile askok erantzun bazioten ere –zenbait kasutan, arazo nagusi bakar bat azaldu zuten–, argitu beharra dago hainbat emakumek zuriz utzi zituztela galdera horiek, eta beste hainbatek era horretako galderei ez zietela erantzungo adierazi zutela, “gai pertsonalak” zirela argudiatuz.

a) Familiaren alorrean izan dituzten edo gaur egun dituzten arazo nagusiak

1. Arazoak etxera itzultzeko ordutegiarekin, bereziki asteburuetan edo jai egunetan.
2. Neskek nebek (gizonak) baino erantzukizun handiagoa dute etxeko lanetan.
3. Ordutegiari dagokionez, nebek askatasun handiagoa dute.
4. Komunikaziorik eza familiako gainerako kideekin.

Arazo nagusietako batek zerikusia du etxeetako erantzukizunen banaketarekin, neskek mutilek baino erantzukizun handiagoa baitute. Josune Aguinagak gazteria eta generoari buruzko azterketan (2004) azaldu bezala, gazteek, etxe barruan lanak egiteaz gainera –eta gai hori interesgarria da familietako lan-banaketa dela eta–, eta beren adinarekin bat datozen erantzukizunak hartu behar dituztela pentsatuta ere, ez du koherentziarik etxeko lanetan nesken ehunekoa sistematikoki mutilena baino handiagoa izatea.

Kasu berezi gisa, honako hauek aipatu ziren:

- ✓ Tratu txarrak, alkoholismoa.
- ✓ Osasun-arazoak.
- ✓ Diru-arazoak.
- ✓ *“Gizonak zein emakumeak gustatzen zaizkidala onartzea”.*

a) Adiskideekin izan dituzten edo gaur egun dituzten arazo nagusiak

1. Adiskideen arteko aldeak kudeatzeko gaitasun eskasa.
2. Nesken arteko lehia eta inbidia.
3. Nesken arteko gezurrak eta borrokak.

Kasu berezi gisa, honako hauek aipatu ziren:

- ✓ *"Koadrilan kide berri bat sartzea oso gauza zaila da".*
- ✓ *"Neska izateagatik ezin dut mutilekin futbolean jokatu".*
- ✓ *"Festara joateko baino ez zaituzte nahi".*
- ✓ *"Egoismo pertsonalarekin zerikusia duten kontuak".*

a) Bikotekidearekin izan dituzten edo gaur egun dituzten arazo nagusiak

1. Tratu txar psikologikoak (jeloskortasuna, konfiantzarik eza, kontrola, gutxiagotasun-sentimendua, iraina).
2. Bi kasutan, indarkeria fisikoa aitortu zen:
 - *"Etengabe egiten genuen eztabaidan, eta behin baino gehiagotan jaso zidan eskua".*
 - *"Zintzotasuna dago, baina urduritzen denean, beretzat gordetzen du, eta horregatik, behin jo egin zidan. Orain aldatzeko ahalegina egiten ari da".*
3. Leialtasunik eza eta eztabaidak.
4. Urruntasuna, leku berean bizi ez direlako.

Kasu berezi gisa honako hauek aipatu ziren:

- ✓ Zintzotasunik eza.
- ✓ *"Azkarregi hartu nahi zuen konpromisoa".*
- ✓ *"Leku desberdinetakoak izatea, hezkuntza-maila berekoak ez izatea eta pentsatzeko modu desberdina edukitzea".*

Desberdintasunak onartzeko eta, hortaz, premiak identifikatzeko zailtasunak zituzten neskak arazo zehatzak aipatzean konturatzen dira beren familiarterko harremanetan eta bikote-harremanetan ez direla mutilen berdinak, beraiek uste bezala. Berezi bikoteen kasuan, nabarmen agertzen da indarkeria psikologikoa eta kontrola; gai hori, edonola ere, hurrengo atalean landuko dugu sakonago.

4.7. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Emakumeen kontrako indarkeria emakumeen gutxiagotasun-egoera iraunarazten duten printzipio eta balioetan oinarritzen da. Bi sexuen arteko desberdintasunaren goreneko adierazpena da, eta egunero jartzen ditu zalantzan emakume askoren

funtsezko eskubideak. Gazteak ez daude ageriko desberdintasun-egoera horietan parte hartzetik eta biktima izatetik libre; are gehiago, pertsona helduen ingurunean arazoa existitzen denik ere onartzen ez duen eta/edo txikiagotzen duen gazteriak arrisku handiagoa du. Horrez gainera, egoera horretaz jabetzeko zailtasunak dituzte. Emakumeak zigortzen dituzten eta desberdintasun-egoerak iraunarazten dituzten sinesmenek eta estereotipo sexistek, beraz, gaur egungo gazteen artean indar handia dutela dirudi.

Horregatik, funtsezkoa da, neska gazteekin jarduteko eta esku hartzeko planak abian jarri aurretik, herritarren egoera zehatzaren erradiografia bat egitea; era horretara, modu egokiagoan jardungo baita, haien premietara hobeto egokituz.

Lehenik, alor horri buruz azpimarratu beharra dago taldeen bitartez egiaztatu ahal izan dela ia parte-hartzaile guztiek ezagutzen zutela *Emakumeen kontrako indarkeria* esapidearen esanahia, eta era honetara definitu zuten:

- ✓ *Generoko tratu txarrak*”.
- ✓ *”Tratu txar psikologikoa eta fisikoa*”.
- ✓ *”Indarkeria ekonomikoa*”.
- ✓ *” Emakumeari kalte egiten dion edozer da indarkeria*”.
- ✓ *”Mutil bat kalera irteten denean, lasai ibil liteke (...) Kanean ezin lasai ibil zaitezkeen sentipena*”.

Tratu txar fisikoen aurretik tratu txar psikikoak egoten direla adierazi zuten neskek, narriadura pixkanakakoa izaten dela, eta gainera, nolabaiteko indarkeria-zirkulu bat sortzen dela.

Bada datu deigarri bat neska gazteenek osatutako taldean (15 urte), hain zuzen ere, moderatzaileek beren bizitzan tratu txarrak jasango zituztela uste zuten galdetu zietenean, baietz erantzun zuten guztiek: *”gertatu arte ez dakizu nola erantzungo duzun*”.

Hala ere, argitu zutenek, kanean dute indarkeria matxista jasateko arrisku handien:

”Norbaitek zerbait eginez gero, erreakzionatuko dudala espero dut”.

”Baina hitzaldietan esan ziguten, hori pentsatuta ere, gero ez zarela gertatzen zaizunaz ohartzen”.

15 urteko nesketako batek Arrigorriagako emakume baten kasu ezaguna azaldu zuen: emakume hark genero-indarkeria jasaten zuen, baina, neskak azaldu zuenaren arabera, ez zituenez tratatu txarrak salatu, *“ezin izan zen ezer egin”*. Moderatzaileetako batek argitu zien bazegoela zer egina (laguntza psikologikoa, gizarte-baliabideak, osasun-arreta... eman).

15 urteko neskez osatutako talde horrek oso modu positiboan baloratu zuen Udaleko Berdintasun Sailak bultzatuta, genero-indarkeriari buruz Institutuan izandako hitzaldiak, eta nabarmena zen horietan ezagutzak eta informazio zehatza berenganatu zituztela.

19 eta 25 urte bitarteko Herriguneko herritar talde bateko kideek, goi-mailako ikasketekin gehienak (baten bat ikasten oraindik), onartu zuten lagun bat baino gehiago zutela indarkeria-motaren bat jasandakoa, baina argitu zuten, halaber, laguntzeko ahalegina egin zuten aldiro, mutilarenganako higuina sentitu zutela, baina, bereziki, adiskidearenganako amorrua sentitu zutela, mutilarenganako baino gehiago, *“azkenean zu zara gaizki amaitzen duzuna, neskak mutilarekin jarraitzen duelako eta zu sorgintzat hartzen zaituztelako”*.

Bestalde, adierazi zuten gizonezkoek errudun sentiarazten dituztela emakumeak, jasaten ari diren tratatu txarren errudun; hala ere, geroago adierazi zuten, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeek alde egiteko erabakia ez hartzeagatik sufritzen dutela egoera hori. Zenbait parte-hartzailek emakumeak berak hartzen zituzten egoeraren errudun, *“niri noizbait gertatuko balitzait, behin, alde egingo nuke”* (...) *“lehenengo zaplaztekoan, maletak hartu, eta alde”* esaten zuten denek, aho batez. Moderatzaileetako batek ohartarazi zien era horretako baieztapenak oso kontuz egin behar direla, hainbat ikerketaren bitartez egiaztatu ahal izan baita emakume guztiek dutela, emakume izate hutsagatik, beren bizitzako uneraren batean indarkeria jasateko arriskua.

Horren aurrean, parte-hartzaileetako batek galdetu zuen ba ote dauden behar adina baliabide indarkeria-egoera horiekin bukatzeko erabakia hartzen duten emakumeek beren burua babestuta ikus dezaten.

Sortutako nahasmena zela-eta, moderatzaileetako batek argi azaldu zien 19 eta 25 urte bitarteko neska-taldeko parte-hartzaileei, herritartasun, gizarte-maila, hezkuntza-maila... guztiei eragiten diela indarkeriak. Eta argitu zien, halaber, independentzia ekonomikoaren eta emozionalaren artean dagoen aldea, eta bide

batez azpimarratu zuen independentzia ekonomikoak erraztu egiten duela independentzia emozionala, baina ez duela hura bermatzen; hala ere, independentzia emozionalak, independentzia ekonomikorik gabe ere, murriztu egiten du senarrarengandik indarkeria jasateko probabilitatea.

Kirola egiten duten neskez osatutako talde batean (17-18 urtekoak gehienak), zehaztasunez definitzen bazuten ere emakumeen kontrako indarkeriaren esanahia, ez zuten uste era horretako indarkeria zegoenik neska gazteen artean, eta beren amen adineko emakumeei eragiten ziela pentsatzen dute. *"Gaur egun ez da halakorik gertatzen, ez adina horietan ez besteetan. Orain dela urte askotako kontuak dira, gure aitona-amonen garaikoak"*.

Bestalde, mutilek neskalagunei (neska gazteak) egiten dieten kontrolari dagokionez (sakelako telefonoa begiratu, denbora guztian non dagoen jakin beharra...), ez zetozen bat genero-indarkeriatzat hartzearekin. Ildo beretik, era horretako kontrolik ez dutela onartzen aipatu zuten, edo, izatekotan ere, *"berdin zaigu zer esaten diguten (mutilek)"*. Aipatu zuten, halaber, gaur egun gazteen artean duten hitz egiteko modu eta doinu zakarra eta apur bat gogorra erabat normalizatuta dagoela eta neskek zein mutilek erabiltzen dutela; eta orain ez bezala, beren gurasoen garaian errespetu faltatzat hartzen zen.

Bestalde, neska kirolarien taldean, kritikatu egin zuten komunikabideek gai honetan betetzen duten papera, izan ere, neska horien ustez, komunikabideek indarkeriaren ondorioak baino ez dituzte erakusten, heriotza alegia, eta emakume horiek amaiera arte, beren heriotza arte, bizitzen duten bidearen berri eman beharko lukete. *"Ondorioak ematen dizkizute, hil eta gero ez dut uste deitzeko aukera izango duzunik"*. *"Prebentzioa falta da."* Indarkeria-mota horren arrazoiei dagokienez, *"etxean erakusten dizutenak, horrek eragin handia du"* adierazi zuten.

Beraz, egiaztatu ahal izan dugunaren arabera, nesken artean ez dago inolako zailtasunik mutilek beren bikote-harremanetan egiten duten kontrola hautemateko, baina ez datoz bat hori indarkeria psikologikoaren eremuan sartzearekin; horrez gainera, oso urruneko errealitatetzat dute indarkeria-mota hori, ez die beraiei eragiten, aurreko belaunaldiei baizik, eta beraiek jasaten dituzten egoerak minimizatu eta ukatu egiten dituzte.

7 taula. Atal honetan hautemandako premiak

Premia-motak	Adostasunik batere ez	Adostasun gutxi	Ez adostasunik ez desadostasunik	Ados	Gutziz ados	Ed/Ee
Prebentzio-neurriak eta indarkeria garaiz hautemateko neurriak behar dira	% 1,7	% 2,5	% 6,6	% 24	% 64,5	% 0,8
Indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko neurri gehiago behar dira	% 1,7	% 2,5	% 6,6	% 26,4	% 62,8	% 1,7
Tratu txarren biktima diren emakumeei abegia eta etxebizitza emateko baliabideak beharko lirateke	% 4,1	% 0	% 8,3	% 34,7	% 52,1	% 0,8
Emakume gazteentzat prebentzio- eta autodefentsa-ekintza gehiago egotea nahiko nuke	% 3,3	% 4,1	% 9,1	% 33,9	% 48,8	% 0,8
Gizonentzat prebentziorako eta berriro hezteko ekintzak jarri beharko lirateke martxan	% 3,3	% 5,8	% 13,2	% 33,1	% 42,1	% 0,8

Gizonentzat prebentziorako eta berriro hezteko ekintzak martxan jartzearekin adostasunik batere ez edo adostasun gutxi dutenak % 9,1 dira, eta datu deigarria da hori, inondik ere.


Parte-hartzaileen adinari erreparatuta, 19 eta 25 urte bitarteko neskek, oro har, bat datoz era horretako neurriak hartzearekin. Edonola ere, bereziki deigarria da zenbateko adostasun-maila duten adin-tarte horretakoek **indarkeriaren prebentzio-neurriak eta garaiz hautematekoak** hartzearekin eta indarkeriaren biktima diren emakumeenganako **arreta hobetzeko** neurriak ezartzearekin, izan ere, adin horretako neska-taldearen % 100 *ados edo erabat ados* dago bi neurri-mota horiekin.

Hala ere, eztabaida-taldean bitartez egiaztatu ahal izanenez, Udalak genero-indarkeriaren aurrean hartu beharreko paperari dagokionez, neskek ez dute ikusten Udalak gauza handirik egin dezakeenik, herritar guztiak kontzientziatzeko hitzaldiak izan ezik, izan ere, haien ustez "*edonori gerta dakiok*". Diagnostikoan parte hartu zuten Abusuko auzokoek azpimarratu zutenenez, parte-hartze soziala txikia da auzo horretan, eta horrek zailtasun ugari ekartzen ditu edozein jarduera abian jartzeko unean; orobat aipatu zuten ez zegoela ia harremanak Arrigorriagako Herrigunearekin.

4.7.1. Udalerriko egoera edo leku arriskutsuen identifikazioa

Ikerketan parte hartu dutenei Arrigorriagan (baita garraio publikoan ere) emakumeak edo beren burua seguru ikusten ez duten leku edo egoera arriskutsuak identifikatzeko eskatu zitzaizenean, honako erantzun hauek eman zituzten:

19. grafikoa. Leku arriskutsuen identifikazioa



% 21,5ek ez du uste udalerrian leku edo egoera arriskutsuak *daudenik*. % 40k, aldiz, ez daki edo ez dio galderari erantzun; horrek esan nahi du ez dutela horretan pentsatu ere egin.

Gainera, adina kontuan hartuta, neska zaharrenak dira Arrigorriagan leku edo egoera arriskutsuak daudela gehien uste dutenak. Bestalde, bizilekua kontuan hartuta, ez da alde nabarmenik ikusi erantzunen artean. Edonola ere, zehaztu beharra dago eztabaida-taldeetan galdera hori bera egin zitzaienean, parte-hartzaile guztiek, adin guztietakoek, oso modu garbian identifikatu zituztela emakumeentzat edo beraientzat seguruak ez ziren hainbat leku.

Emakumeek edo parte-hartzaileek beren burua seguru ikusten ez duten leku, egoera edo garraio hauek azpimarratu dira:

- ✓ *Boluetako zubia (egunez zein gauez).*
- ✓ *Ollarganeko RENFEren tren-geltokia eta inguruak* (adierazi dute argi gutxi dagoela eta, gauen, poliziarik ez dagoela).
- ✓ *Torrentegi parkea* (adierazi dute argi gutxi dagoela eta, gauen, poliziarik ez dagoela).
- ✓ *Lonbo ingurua.*
- ✓ *Ollargan ingurua, oro har.*

Edonola ere, parte-hartzaile askok (aurreko atalean baino gutxiagok) beste leku hauek hartu zituzten arriskutsutzat, bai beraientzat bai emakumeentzat oro har:

- ✓ *Martiartu ingurua.*
- ✓ *Kiroldegi inguruko parkinga.*
- ✓ *Aixarte.*
- ✓ *Dinamita.(Mendikosolobarrena)*
- ✓ *Agirre Lehendakariaren kalea.*
- ✓ *Artizarra Musikaltegi ondoko tunela.*
- ✓ *Gaztegune ingurua eta Pergola arteko bidea.*
- ✓ *"Ollarganera igotzen den kaleak ez du argirik. Beldurra ematen dit bakarrik igotzeak".*
- ✓ *Kubora eta Lepantora igotzeko bidea.*
- ✓ *Garraio publikoa gauez.*
- ✓ *Ikastetxea, gimnasioa...*
- ✓ *"Edozein kale bakarti, gauean berandu."*

Ildo horretatik, deigarriak dira, halaber, emakume parte-hartzaileek egin dituzten aipamen hauek:

"Gauak segurtasunik eza eragiten dit, eta sentipen hori ez dizu ezerk kentzen, ez argiek ez ezerk".

"Arrigorriagako tren-geltokia oso iluna da, eta ez dago segurtasuneko langilerik inoiz, eta geltokiaren irteeran dagoen parkean zuhaitz asko daude, beraz, gauez itzultzean segurtasunik eza sortzen du horrek. Elizaren alboan, oinezkoentzako kalea, oso irekia da, eta segurtasunik eza eragiten du bakarrik zoazenean, ez baita automobilik igarotzen (...)


"Abusutik Olatxura igotzeko, gune guztiak oso ilunak dira edo gune ezkutua dira. Gauez festa egitetik itzultzean, autobusak errotondan du azken geltokia, eta bidegurutze horretatik Ollarganera igotzeko, oso ilun dago".

Taldeen artean egiaztatu ahal izan zen, oro har, Arrigorriagako neska gazteek beldurra dutela zenbait lekutatik eta zenbait ordutan ibiltzeko, eraso-kasuak, bortxaketak... gertatzen direlako.

4.7.2. Emakumeen segurtasuna hobetzeko neurriak

Oro har adierazi dute polizia gehiago behar dela, bereziki gaueko ordu txikietan, eta garraio publikoak maizago ibili beharko lukeela.

20. grafikoa. Arrigorriagan emakumeen segurtasuna hobetzeko neurriak



Abusu inguruko herritarrak dira *arazoak sortzen dituzten guneeetan argi gehiago eta instalazioak aldian-aldian berrikusteko* neurrien premia gehien aipatzen dituztenak.


Beste neurri batzuk atalean, honako hauek aipatu ziren:

- ✓ *Boluetatik Abusura anezka bat jartzea.*
- ✓ *Santa Isabel kalean, instalazioak aldian-aldian berrikusteko neurriak betetzea*

4.8. DESBERDINTASUNAREN PERTZEPZIO OROKORRA

Diagnostiko honetan galdeketari erantzunez parte hartu dutenen gogoetari amaiera emateko, emakumeen eta gizonezkoen artean desberdintasun gehien gizaratearen zer hiru eremutan ikusten zituzten azaltzeko eskatu zitzairen:

21. grafikoa. Emakume gazteek zer alorretan hautematen dituzten desberdintasun handienak



Grafikoan ikus daitekeenez, nesken % 71,1k uste du emakumeen kontrako indarkeria dela emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handieneko eremua.

Parte-hartzaileen adina kontuan hartuz gero, neska gazteenek *Gizarte-ekintza* aipatu dute desberdintasun gehien hautematen den eremu gisa. Horrek adierazten du neskek sentsibilizazio-maila handiagoa dutela ezintasunen bat duten emakumeei edo emakume etorkinei dagokienez.

Hala ere, *parte-hartze politikoa eta soziala* eta *emakumeen kontrako indarkeria* alorretan guztiz kontrakoa gertatzen da.

Bizilekuaren arabera azterketa eginez gero, Abusu inguruko ustez, *harreman pertsonalak* eta *emakumeen kontrako indarkeria* alorretan daude emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handienak.

Edonola ere, eztabaida-taldeetan bildutako argumentuei erreparatuta, bileren hasieran neskei eskatzen zitzaizkion emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna zer zen azaltzeko, parte-hartzaile gehienek lanaren eremuari egiten zioten erreferentzia (desberdintasuna soldatetan, emakumeen "lanaldi bikoitza"...).

Baina moderatzaileek lanaren eremutik kanpo desberdintasunaren beste alderdi erakusgarriak azaltzeko eskatu zietenean, neska gazteenek (15 urte) eta Herriguneko neskek osatzen zuten taldean, bi adibide kontrajarrien bitartez azaltzen zuten errealitate hori: batetik, Arrigorriagan askoz ere arropa-saltoki gehiago zeudela emakumeentzat gizonentzat baino (beraz, kasu horretan, emakumeek aukera gehiago dituzte), eta, aitzitik, emakumeak baldintza txarragoak dituztela kirola egiteko, ez baititu inork babesten.

Beraz, hori kontuan hartuta, moderatzaileetako batek galdetu zienean beren ustez desberdintasun-mota batzuk emakumeen aldekoak ziren eta beste batzuk gizonezkoen aldekoak ziren, neskek gogoeta egin, eta emakumeek, oro har, gizonek baino baldintza txarragoak dituztela erantzun zuten. Berriro ere, desberdintasun nagusiak lanaren eremuan ("*nagusi izateko*"), politikan, baina, batez ere, kirolean, "*nesken kirolak ez dira inoiz agerian jartzen*" hautematen zituzten. Zehazki Arrigorriagari dagokionez, futbol-talde batekoa zen parte-hartzaileetako batek azaldu zuenez, gai horretan haserre zegoen, izan ere, behin, futbol-partida bat jokatu ondoren, zuzendaritza-taldeko kide batek honela esan zien: "*orain benetako futbola ikustera noa*".

Parte-hartzaileek bi sexuen artean dagoen desberdintasunaren erakusgarrietako bat publizitatea dela adierazi zuten. Emakumeak, askotan, sexu-objektu gisa agertzen direla ikusten dute, "*dena erakusten*"; edonola ere, parte-hartzaileen ustez, egoera hori modu positiboan aldatu da. Argitu beharra dago, ordea, neska gazteenez osatutako taldeko parte-hartzaile guztiek Udaleko Berdintasun Sailak sustatu eta Institutuan emandako indarkeria sexistari buruzko tailerretan parte hartu zutela, eta, hortaz, gai hori landuta zutela.

Arrigorriagako Abusu inguruan bizi diren 19 eta 25 urte bitarteko taldeko parte-hartzaileentzat, emakumeak gizonekiko duten gutxiagotasun-egoera da desberdintasuna, eta desberdintasun hori enpleguan da nabarmenena, zehazki emakumeek soldata txikiagoak dituztelako eta lanpostu jakin batzuetan gora egiteko zailtasun handiagoak dituztelako.

Bestalde, diskriminazioa zer zen azaltzeko eskatu zitzaizenean, lehenik aipatu beharra dago zenbait parte-hartzaile etorkinek ez zutela hitzaren esanahia ezagutzen. Gai horri buruzko iritzia eman zutenen artean, "bazterketa" hitza da irmotasun handienaz aipatu zutena.

Diskriminazioaren kontzeptuari buruzko iritzia emateko zailtasunak zituztela ikusirik, moderatzaileek eskatu zieten azaltzeko emakume izateagatik beren burua zer egoeratan ikusi zuten diskriminatuta. Batzuek "etxean" erantzun zuten, etxeko lanetan, "mutilek ez dutelako egiten eta neskek bai". Edonola ere, beste parte-hartzaile batzuk azaldu zuten ez zatoztela bat baieztapen horrekin, esaten baitzuten mutil askok egiten zituztela etxeko lanak, heziketaren arabera zela hori. Dena dela, bi ume zituen 21 urteko neska batek honela adierazi zuen berriro ere: "*hezkuntzak berdin dio, berdin-berdin dira matxistak*".

Zaharrenen taldean aipatutako beste desberdintasun aipagarrienetako batek zerikusia du gizonezko gazteen askatasunarekin, alegia, gizonek emakume gazteenen aldean askatasun handiagoa dute gauez irteteko, eta hainbat arrazoi aipatu zituzten: "*zerbait gertatzeko beldurra (...) haurdun itzuliko den beldurra, emakumea baita haurdun datorrena*". Komunikabideetan eta politikan ere gizon gehiago ikusten direla aipatu zuten. "*Edo, gutxienez, askoz ere gizon gehiago ikusten dira*".

Abusuko emakumez osatutako talde horrek berak adierazi zuenez, gaur egungo gazteen artean, genero-desberdintasun gutxiago dago, "*gutxiago daude, baina oraindik badaude*". Hezkuntza eta balioak ezinbestekotzat hartzen zituzten, halaber, berdintasunean oinarritutako gizartera iristeko. Hala ere, gazteen artean ez zuten diskriminatuta egoteko beste modurik hautematen, eta beren eguneroko bizitzan ere ez zuten halako desberdintasunik bizi. Gizon eta emakumeen artean indarrean dirauen desberdintasun horri buruzko pertzepzio orokor hori dela-eta, honako ondorio hau atera zuten talde horretan: ez zuten desberdintasunik jasaten emakume izateagatik.

Herriguneko 19 eta 25 urte bitarteko neska-talde bateko kide batzuek diskotekatan bizi duten errealitate baten berri eman zuten: ez zuten sarrerarik ordaintzen emakumeak zirelako, gizonezkoak erakartzeko "amu" gisa-edo. Hala ere, dirudenez, ez zuten argi hori emakumeenganako edo gizonenganako diskriminazioaren erakusgarri zen, eta hortaz, ez zuten argi ikusten emakumeak objektu sexualaren papera egiten zuten. "*Azken batean, marketing moduko bat da, baina gizonezkoak ere diskriminatuta sentitzen dira*". (...) Azkenik, "*zure burua amu gisa zenbateraino ikusten duzun edo egoera horretaz zenbateraino baliatzen zaren, horren arabera izango da*". Askotan, debekua denaren edo hautaketa denaren arteko paralelismoa da emakume bakoitzak hartzen dituen jokabideen esanahiaren oinarria.

Beraz, errealitate horren parte handi batek emakume izatearekin baino gehiago egoera horren aurrean hartzen den jarrerarekin du zerikusia. Gogoeta horren ildotik, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna zen parte-hartzaile batek publizitatearen eta komunikabideen adibidea jarri zuen, bere ustez emakumeenganako diskriminazioa oso nabarmena baita arlo horietan. Gainerako parte-hartzaileek zehaztapen harekin bat zetozeela adierazi zuten, baina, berriro ere, jarrera kontua zela adierazi zuten: "*hautatzen baduzu, oso kontziente zarelako izango da*". Edonola ere, komunikabideetako matxismoari dagokionez, zenbaitek adierazi zuten, "desberdintasunak daude emakume askok horretarako bide ematen dutelako".(...) "*Egiatan, gaur egun Interviú aldizkarian ateratzea ekonomiako master bat edukitzea bezala da*".

"*Desagertzen ari da, gero eta gehiago. Atzera begiratzen badugu, garbiago ikusten zen desberdintasunak zeudela (...) berdintzen ari gara*", adierazi zuen Herriguneko 19 eta 25 urte bitarteko neska-taldeak.

Diskriminazio kontzeptuari dagokionez, parte-hartzaileek diskriminazioaren adibidetzat hartzen zuten, esate baterako, adar tekniko bat ikastea erabaki duen neska bat lankideek makurraraztea, edo, alderantziz, estatikarekin edo zaintzarekin (estetika, erizaintza...) zerikusia duen karrera bat hartu duen gizonezko bati gaizki begiratzea.

Ildo horretatik beretik, kirolariez osatutako nesken taldean aipatu zuten, hainbat ikastetxetan diskriminatuta sentitu dira gimnastikako eskolatan, eta irakasleek proba fisikoetan mutilei neskei baino gehiago eskatzen diete, edo ariketa jakin baten aurrean, espazio fisikoa sexuaren arabera bi taldetan banatzen zuten. Dena dela, hainbat adibide eman ondoren, ez zuten uste inolako diskriminaziorik zegoenik, esate baterako, jolas-orduetan mutilek espazio komuna menderatzea. Gai horri dagokionez, nesken iritziz, mutilek jolastokiaren zatirik handiena hartzen dutenean (futbolean jokatzeko, esaterako) neskak bazter batean eserita gelditzen direnean, nesken erabakia da, eta ez zitzaion horretara derrigortzen, inondik ere.

Ondorio gisa, parte-hartzaileek ez zuten inolako debekurik hautematen (espazio bat hartzeko edo gauza jakin batzuk egiteko); aitzitik, jarrera desberdinak hautematen zituzten nesken eta mutilen artean, eta hori rolen ondorioa dela adierazten zuten (ikasgelan "barregarriaren" rola mutilek beren ikaskideen aurrean "*indartsu*" agertzeko premiari egotzi ohi zaio), sexu bakoitzaren izateko moduaren ondorioa.

Bi sexuen artetik kontrol sozial handiagoa nork zuen galdetu zitzaielarik, hau da, gaur egun hautatzeko askatasun handiagoa nork duen galdetu zitzaielarik, gehienek pentsatzen zuten emakumeek zutela, nahiz eta zenbaitentzat errealitate hori emakumeen beren esku zegoen, alde behintzat. Horrekin batera, diskriminazio positiboko neurriekin bat ez zetozela adierazi zuten: "*Ea emakumeen alde egiteagatik ez ditugun gizonak diskriminatzen*". (...) "*Berdintasunaren Legeak gizonak diskriminatzen ditu*". Moderatzaileek azaldu zieten ekintza eta diskriminazio positiboko neurrien funtzionamendua erabakigarria dela, emakumeak emakumeen berezko ezaugarri fisikoen arabera bereizten dituzten genero-estereotipoek funtzionatzen duten bitartean (ahotsa, itxura, etab.).

Hau da, diagnostikoan parte hartu duten neska gazte askorentzat, gizarteko hainbat alorretan dauden desberdintasunek, maila handi batean, lotura zuzena dute **emakumeen jarrerarekin**, hau da, emakumeen esku dago gizonen aurrean gutxiagotasun-baldintzetan egotea.

Aipagarria da, halaber, desberdintasunaren eta diskriminazioaren kontzeptuak oso urrun ikusten bazituzten ere, neskek hainbat adibide zehatz zituztela, izenik gabeak, baina dinamizatzaileek eskaini bezain pronto jartzen zietela izena. "*Oraintxe konturatzen naiz...*" sarri entzun zen.

Desberdintasuna ez da, beraz, eraikuntza argi bat, zeinetan identifikatzen diren premia eta interes espezifikokoak. Neskek argi hautematen dituzte diskriminazio-egoerak, baina banan-banakako terminoetan azaltzen dituzte, erantzukizun berbera emanaz neskei zein mutilei: lehenei "hala erabakitzen dutelako" eta bigarrenei "halakoak direlako".

Ikuspegi horretatik, nekez izango dira neska gazteak beren diskriminazioarekin amaitzeko subjektu aktiboak... existitzen denik ere sinisten ez badute.

4.9. PARTE-HARTZAILEEN AZKEN EKARPENAK

Azkenik, galdeketaren amaieran zein eztabaida-taldeetan, beharrezkotzat jotzen zituzten bestelako oharrak edo ekarpenak egiteko eskatu zitzaizen parte-hartzaileei:

a) Abian jarri beharreko neurriak:

- ✓ Autodefentsarako tailerrak martxan jartzea.

- ✓ Arrigorriagan Desintoxikazio Zentro bat jartzea.
- ✓ Udalak Santa Isabel auzoari arreta gehiago eskaintzea.
- ✓ Abusuko Liburutegiko ordutegia asteburuetara zabaltzea, ikasketa-gela bat bihurtzeko helburuarekin.
- ✓ Udalerrian 16 urtetik gorako gazteentzako gun e gehiago prestatzea.
- ✓ Oporretan, ikasten ari diren gazteentzat aldi baterako lanen programa bat abian jartzea.
- ✓ Udalerrian Udaltzaingo gehiago egotea, oso azaleko zaintza egiten dutela aipatu zen.
- ✓ Udalerriko gizon gazteei galdeketa egitea.

b) Alderdi positiboak:

- ✓ Parte-hartzaile askoren ustez, galdeketa oso interesgarria izan da, eta baita bertan landutako gaiak ere.
- ✓ Antolatutako eztabaida-taldee i dagokienez, parte-hartzaile askoren ustez, eztabaidarako gun e hori leku ezin hobea da, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz eztabaida egiteko edo Udalari herritar gazteak diren aldetik beren eskakizunak azaltzeko.

b) Alderdi negatiboak:

- ✓ Galdeketa derrigorrez bete beharrekin bat ez zeto zela azaldu zuten. Gai horri dagokionez, gaizki ulertu bat izan da, izan ere, galdeketa ez zen derrigorrez bete behar (borondatezkoa zen), eta eztabaida-taldeetan parte hartzea ere ez zen derrigorrezkoa.
 - ✓ Parte-hartzaile askoren ustez, galdeketa luzeegia izan da, galdera gehiegi daude, eta horietako batzuek ez dute zentzurik.
 - ✓ Galdeketa hainbat jarduera-eremutarako iradokitzen ziren neurri asko, gizarte osora estrapolatzeko modukoak izan beharko luketela aipatu zen zenbaitetan, eta ez zutela soilik emakumeei zuzenduak izan behar.
- Herritarrek ez dute interesik agertzen udal erakundearekiko harremanei eta haren jarduerari dagokienez.

Kexa horiek gorabehera, diagnostikoan bai alderdi kuantitatiboan bai kualitatiboan parte hartu zuten neska gehienek adierazi zuten parte-hartze horrek asko lagundu ziela ordu arte aztertu ez zituzten zenbait alderdiren azterketan. Deigarriak dira, halaber, idatziz egindako zenbait iruzkin, besteak beste, familiarekin, lagunekin eta

bikotekidearekin zituzten arazoei buruzko galdera zela-eta, izan ere, galdera hori beren intimitatearen eremuan sartzen dela adierazi zuten.

Orain arte ikusi bezala, neskek ez dute gazte guztiei dagozkien arazoen taldeko kontzientziarik: gurasoekin eztabaidak, ordutegiak direla-eta, bikotekideen (mutilen) presioak eta kontrola, lagunekiko lehia... Hala eta guztiz ere, *beren* arazoak edo zailtasunak direla uste dute, eta beraiek direla horiei erantzun behar dietenak.

Harrigarria da urteen joanean nola bihurtu den mugimendu feministaren oinarritzko kontsignatako bat, alegia, "pertsonala dena politikoa da" -desberdintasunaren normalizazioa zalantzan jartzera eramanez, "pertsonala dena EZ da politikoa" kontsignan. Arazotzat hartzen dituzten gaiak eta horiei emandako erantzunak, nesken arabera, norbanakoaren zeregina dira, norberaren erabakia, aukera bat.

Argumentu horien oinarrian, maila handi batean, ideia bat dago, hain zuzen ere, mutilekiko berdintasuna lortuta dagoela, eta diskriminazio-egoerak kasu bakanak direla. Parte-hartze politikoan eta genero-indarkerian baino ez dute antzematen desberdintasunaren izaera estrukturala. Azken horretan ikusten dute, hain zuzen ere, laguntzaren premia handien zerbait gertutako balitzaie; baina, udalerriko hainbat eremutan segurtasun gutxi dagoela onartzen badute ere, horrek ez die segurtasuna hobetzeko egin behar diren konponketak egin daitezkeen eskatzera bultzatzen.

Eskakizunak egiten dituen subjektua eraikitzeko zailtasun hori beste bi osagai hauek eragina izan daiteke: gazteen ezaugarri ebolutiboak eta neska gazteek errealitate horretan (geografikoa eta denborazkoa) dituzten bizipenak. Eboluzioaren ikuspegitik, nerabezaroa eta gaztaroa helduen mundua zalantzan jartzeko etapak badira ere, erreferenteak behar dituzten etapak ere badira, eta, neskek berek esan bezala, ez dute jarraitu beharreko eredu gisa definitutako emakumezko irudi errebindikatiborik eta/edo rol tradizionalen irudi urratzailerik.

Bestalde, gazte horiek estalita izan dituzte beren beharrak, errebindikazioaren premiarik gabe. Beren bizi-kalitatea normaltzat hartzen duten zerbait da, beraz, taldeko errebindikazioa beren kulturatik edo bizitza-estilotik kanpoko osagaia izan daiteke, nahiz eta banakako errebindikazioetan esperientzia izan duten.

4.10. ONDORIOAK

Ondoren, ateratako ondorio nagusien zerrenda aurkeztuko dugu. Ondorio horiek osatuko dute Arrigorriagako emakume gazteei buruzko diagnosian kontuan hartuko diren jarduera-ildoen oinarria:

- Lortutako emaitzei buruzko lehenengo ondorioak adierazten du neska gazteek ez dutela genero-desberdintasuna egiturazko arazotzat hartzen. Hala ere, desberdintasuna azaltzeko adibide zehatzak ematen direnean, horretaz jabetzen dira, eta "*oraintxe konturatzen naiz...*" adierazten dute etengabe, aho batez.
- Neskek oso modu zehatzean ulertzen dute genero-desberdintasuna, adibidez, gizonen, zenbait eremutan, emakumeek baino erraztasun handiagoa izan dezakete "*nahi duten lekura iristeko*". Argi daukate hori horrela izan litekeela politikan, lan ordainduan eta kirolaren eremuan.
- Eta beren burua lehenengo bi eremu horietatik urrun ikusten badute ere eta esperientzia handiagoa badute ere ikasleen eremuetan eta harremanekin zerikusia dutenetan (familia, adiskideak, bikotea), ez dute beren esperientzia zuzena desberdintasunaren terminoetan ikusten, beren errealitatean "neskak eta mutilak desberdinak dira, eta, ondorioz, ez dituzte jokabide eta aukera berdinak".
- *Emakumeen kontrako indarkeria* eremuan ikusten dituzte neska parte-hartzaileek desberdintasun gehien. Horretan eragina izan dute, gure ustez, Udalak Berdintasun sailaren bitartez sustatutako hezkidetza-programak eta, zehazki, indarkeriazko bikote-harremanei buruz (indarrean den II. Berdintasun Planean kontuan hartutako jarduera) derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta batxilergoan prebentziorako eta sentsibilizaziorako abian jarritako tailerrek.

Programa horri esker, neska gazteek indarkeria sexistaren esanahiari buruzko iritzi berriak hartu dituzte, nahiz eta denak ez diren tailer horietatik igaro, eta horrek azaldu dezake adinaren arabera ikusi diren aldeak. Gai horri dagokionez, neskek:

- o Nahiko argi dute zer esan nahi duen esapide horrek, nahiz eta aztertzeko hainbat modu dauden. Bada, hala ere, interpretazio

nahiko orokor bat: urrun dagoen zerbait bezala ikusten dute, batez ere beren aurreko belaunaldietako emakumeen artean gertatzen dena; beste interpretazio baten arabera, emakume guztiak, gazteak barne, izan daitezke beren bizitzaren uneren batean indarkeria horren biktima.

- Era horretako indarkeria bikotean gerta daitekeela (eta, zenbait kasutan, gertatzen dela) onartzeaz gainera, hainbat **gune arriskutsu** identifikatzen dira Arrigorriagan, batez ere gune bakartuenetan, joan-etorri gutxienekoetan eta ilunenetan; leku horietatik ibiltzea beldurra ematen die, gauez batez ere.
 - Beldur hori gurasoek ere badute, baina modu indibidual eta pribatuan aurre egiten zaio arazoari (aita edo ama joaten zaie gauez, berandu, automobilean bila, taxi bat hartzen dute, ez dira irteten...)
 - **Prestakuntza handiagoa** da neskek egiten duten eskakizun argienetako bat, hezkuntzaren eremuan antolatutako indarkeria sexistari buruzko prebentzio-tailerren bitartez.
- Diagnostiko honetan, adinaren aldagaia ez da iritzi eta/edo interpretazio desberdinen adierazlea izan. *Emakumeen kontrako indarkeria* eremuari buruzko erantzunetan baino ez da hauteman adinaren eragina, eta eztabaida-taldeetan ere agertu da. Talde horietan, neska zaharrenek gaiari buruzko informazio gehiago bazuten ere, erabateko segurtasunez baieztatzen zuten beraiek ezin jasango zutela era horretako indarkeriarik; gazteenek, aldiz, indarkeria sexista zer sektorera zuzendua den zehaztu behar izan dutenean, "emakume guztiak" kolektiboan sartu dute beren burua.
- Nesken bizilekua ere ez da aldagai erabakigarria izan emandako erantzun eta iritzietan, salbuespen bakarrarekin: Abusuko neskak dira denbora libreaz eta aisiaz gozatzeko udal espazio gehiago eskatu dituztenak.
- Lanaren munduan esperientzia laburra edo hutsala izan badute ere, **lanaren eremuan** hautematen edo ikusten dituzte emakumeen eta gizonen artean desberdintasun gehien.
- 19 eta 25 urte bitarteko neskek ere **denbora librerako espazio gehiago** eskatzen dituzte udalerrian, beren ustez oso eskasak baitira, gazteentzako espazioak batez ere.

- Azaldutako premien arabera, 13-16 adin-tartean ez dago ia neska-mutilentzat jarduerarik udalerrian, eta denbora librean herrian aspertu egiten direla adierazten dute.
- **Garraio publiko gabezia** salatzen dute, bereziki gauean eta asteburuetan; horren ondorioz, emakumeek taxiak hartu behar izaten dituzte, eta baliabide hori oso garestia da aisialdiko jardueretarako oso aurrekontu eskasa duten neskentzat.
- **Udaltzain gehiago ikustea** eskatzen dute, oso gutxi ikusten baitira udalerriko kaleetan: "*beti autoz ibiltzen dira*".
- Nesken artean ez da emakume-elkarteetan, edo bestelakoetan, parte hartzeko interes berezirik hauteman. Diagnostikoak erakutsi bezala, ez dirudi neskek kontzientzia kolektiboa dutenik, hau da, ez dute arazo komunik ikusten; hortaz, oso zaila da elkartzeko beharra eta/edo osatuta dauden elkarteetan (gehienak emakume helduez osatua) parte hartzeko beharra sortzea. Bestalde, ez dirudi interesatzen zaienik, mutilek ez bezala, kirol baten edo denbora librearen inguruan antolatzea.
- Baina taldeetan antolatzeko interesik eza ez dagokie soilik Arrigorriagako gazteei. Oro har, ez dago gizarte-egitura sendorik edo genero-desberdintasunaren kontrako borrokan antolatutako gizarte-mugimendurik. *Emakume gazteen kontzientzia eraikitzea* –boteretzeko prozesuaren alderdi nagusia–, konpondu gabeko kontua da gaur egun oraindik ere.

Diagnostiko honen prozesua bera izan zen zailtasun horren erakusgarri garbia, baina, aldi berean, neskek eztabaidarako duten gaitasunaren erakusgarri ere izan zen. Banakako gogoetak (galdeketarekin) zein taldekoak (eztabaida-taldeetan) erakutsi zuten neskak gai direla beren genero-harremanei buruzko beste azalpen batzuk barneratzeko, nahiz eta ez argi ikusi. "*Oraintxe konturatzen naiz...*" taldeetan errepikatu zen esaldiak garbi erakusten digu neskek modu pertsonalean azaltzen dituztela bizi dituzten desberdintasun-egoerak, ez dutelako beste azalpenik.

- Oso prozesu konplexua da, izan ere, egia da eztabaida-taldeetako parte-hartzaile askoren artean ez zela interes berezirik hauteman gai horiei buruz eztabaidan jarduteko eta ez zutela ondo ulertu gunere hori aukera bat ere

bazela Udalari beren eskakizunak azaltzeko, Arrigorriagako emakume gazte diren aldetik.

- Gaur egungo gazteek informazioa eskuratzeko dituzten aukerak izugarriak badira ere, ez dute aukera hori bera beren ustez lortua den berdintasunari buruz gogoeta egiteko. Zaila da, hortaz, askotan ezin esanezkoak diren sentimenduak, jokabideak, pertzepzioak ezagutzea eta neurtzea, gogoeta horiek ez daudelako, maila handi batean, kulturalki barneratuak. Baina sentimendu eta pertzepzio horiek deskribatzeko zailtasunak oztopoa baino ez dira neska eta mutilen arteko berdintasuna lortzeko prozesuan.
- Galdeketak egitea eta eztabaida-taldeetan parte hartzea informazioa biltzeko oinarrizko teknikak izateaz gainera, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko **sentsibilizatorako eta gogoetarako guneak** ere izan dira Arrigorriagako neskentzat.
- Azkenik, genero-berdintasuna lortuta dagoen usteak berarekin dakar ondorioetako batez ohartarazten digu diagnostikoak: neskek arazo komunak eta, hortaz, premia komunak dituztela ikusteko zailtasuna. Neskek genero-desberdintasuna banakako kontutzat hartzen dutela kontuan hartuta, eta uste horri aurre egiteko, ezinbestekoa da neska eta mutil gazteek hezkuntzan, lurraldearen alorrean, denbora librearen eta aisiaren erabileran, pertsonarteko harremanetan eta beste hainbat alorretan dituzten **balio, motibazio eta interes desberdinak** erreskatatzeko lan konplexuarekin jarraitzea eta horri eustea.
- Hori onartuz gero, errazago ulertuko da berdintasunaren antonimoa ez dela diferentzia, desberdintasuna baizik. Hau da, diferentzia, bere adierazpen guztietan, errespetatu eta aztertu beharreko aberastasun-iturria da, eta genero-desberdintasuna, aldiz, gaur egun Arrigorriagan bizi diren neska gazteen gaitasunak erabat garatzeko oztopoa da.

V. HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK

1. Osasuna, sexualitatea eta gizarte-inklusioa

- ✓ Udalak gazteentzako eta sexuari buruzko informazio-baliabideak ugaltzea.
- ✓ Udalaren Gazteria sailari eskatzea ikerketa honen emaitzak udalaren jardueraren barruan sar ditzan:
 - Generoaren ikuspegia bertako lan-egitasmoetan txertatuz.
 - Neskentzako bakarrik diren jarduerak diseinatuz.

2. Hezkuntza, enplegua eta etxebizitza

- ✓ Udaleko Enplegu sailean gazteei begirako estrategia berezi bat gauzatzea:
 - Aurretik dagoen Lan Poltsa hobetuz eta bultzatuz.
 - Neskentzat ekintza positiboak martxan jarritz, lan-eskakizunetan sexu-bereizketari aurre egin ahal izateko.
- ✓ Adar teknikoek lan-munduan irteera handiago dutenez, garrantzizkoa da ikastetxe guztiek programa malguak eta neskak era horretako prestakuntza hautatzera bultzatuko dituzten informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak abian jartzea. Ildo horretatik, beharrezkoa da ikastetxeetako orientazio-zerbitzua birdefinitzea eta prestakuntza egokia ematea, informazio zehatzagoa eta errealagoa izan dezaten lehen eta bigarren sektoreko lan-motei eta -baldintzei buruz (adibidez, ia ez dela indar fisikorik behar edo ez dela ingurune zikin eta kontrako batean lan egiten). Horregatik, erabakigarria da aurrerantzean ere bide horretatik lan egitea, dagoeneko abian diren *lanbide-orientazio ez-sexistako tailerren* bitartez.
- ✓ Orientazio-taldearen bitartez, ikasleei zuzendutako bisita gidatuak antolatzea Arrigorriaga inguruko lehen eta bigarren sektoreko enpresetara. Era horretara, zuzenetik ezagutuko dute sektorea, eta oso neurri egokia izango litzateke tradizioz existitzen diren aurreiritziak desagerrarazteko.

3. Parte-hartze soziopolitiko eta herritarren parte-hartzea

- ✓ Ikerketa horien emaitzak elkarrekin zabaltzea (emakumeen, gazteen, irakasleen, etab. elkarteak), udalerriko neska gazteen premiak eta eskakizunak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko.

- ✓ Diagnostikoaren emaitzak argitaratzea eta beste udal batzuekin eta erakunde publikoekin erdibanatzea.
- ✓ Neskei zuzendutako hezkuntza-materiala osatzea, formatu erakargarriez eta erraz irakurtzekoez baliatuta, ikerketa-prozesuan hautemandako kezkek eta nahasketak lantzeko eta diagnostikorako hautatutako interesguneen inguruko arazoei eta proposamenei heltzeko.
- ✓ Neska gazteei udaleko hainbat jardueratan (kultura-jarduerak, musika, kirola...) sozialki zein politikoki parte hartzera bultzatuko dieten diru-laguntza sistemak ezartzea.
- ✓ Neska gazte etorkinak ikusgai bihurtzea, eta baita horiek Arrigorriagako bizitzari egindako ekarpenak ere.
- ✓ Emakumeek udaleko bizitza politikoari egindako ekarpenari buruzko ikerketa-beka bat bultzatzea, 25 urtetik beherako nesKentzat.
- ✓ Belaunaldi arteko elkarrizketak bultzatzea, hainbat belaunalditako emakumeak beren agendari, boteretzeari, ekintza-estrategiei edo gizarte-mugimenduei loturiko gaiei buruz gogoeta egitera bultzatuko dituzten espazioen bitartez.
- ✓ Nesken artean, antolatzeko eta parte hartzeko modu ez tradizionalak bultzatzea (gune bat udalaren webgunean, etengabeko postontzi bat, berezko guneak udalaren jarduera orokorretan...), halako eran non erakundeetan parte hartzen ez duten gazteek ekarpenak egin ditzaten Udalaren berdintasun-politikei buruz.

4. Aisia, kirola eta denbora librea

- ✓ Ekintza positiboak bideratzea emakumezkoen kirola gizonezkoen baldintza beretan bultzatzeko, adibidez, nesken futbol- eta saskibaloi-taldeak sustatuz.
- ✓ Nesken artean generoari buruzko gogoeta egiteko plataformak izan daitezkeen kultura-jarduerak bultzatzea, adibidez, antzerki-tailerrak eta sorkuntza artistikoari buruzkoak, generoaren ikuspegitik betiere.

- ✓ Aisiako jarduerak generoaren ikuspegia kontuan hartuta bultzatzea, esate baterako, humorezko tailerrak femeninoan eta barreterapia, emakumeen literatura, memoria historiko femeninoa artean eta historian, etab.

5. Harreman pertsonalak

- ✓ Nerabeen eta gazteen gurasoei zuzendutako lan-estrategia gauzatzea, genero-berdintasunarekin zerikusia duten gaiak ezagutzera emateko, familiaren eremua baita eragin gehien duena hezkuntzari dagokionez. Estrategia horren helburu nagusia gurasoak beren seme-alaben hezkuntza ez-sexistan parte har dezaten lortzea izan behar du.
- ✓ Emakumeen arteko harremanei buruzko eta nesken, ahizpen eta emakumezko ikaskideen eta/edo lankideen artean sortzen diren gatazkak konpontzeko moduari buruzko gogoeta-tailerrak bultzatzea.
- ✓ Harreman pertsonalei eta tratu egokiei buruzko gogoeta-programa bat eskaintzea neskei; eta beste programa batzuk eskaintzea, denbora norberaren garapenerako nola erabili eta/edo autonomia pertsonalen eta pertsonen arteko harremanen esanahia lantzeko.

6. Emakumeen kontrako indarkeria

- ✓ Diagnostiko honekin abian jarri den generoari eta gazteriar buruzko ikerketa-ildoari jarraipena ematea, beste gai interesgarri batzuk landuz, esate baterako, espazio publikoetako indarkeria.
- ✓ Udal jarduera-plan bat gauzatzea, neskek diagnostiko honetan identifikatutako gune arriskutsuei irtenbidea emateko.
- ✓ Eskoletan indarkeriaren prebentziorako lanarekin jarraitzea, egiaztatu baita sentiberatasun handiagoa sortzen duela Arrigorriagako neska gazteen artean.
- ✓ Irakasleen sentsibilizazio-ekintzekin jarraitzea:
Nesken eta mutilen aukera-berdintasuna bultzatzeko eta indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-jarduerak oso gogoeta-ariketa konplexua eta

sakona dira, eta ezin da ikasleekin antolatutako saio bakanen bitartez bakarrik landu. Irakasleen prestakuntza egokia lagungarria izango da era horretako jarduerak duten ondorioak orokortzeko.

- ✓ Indarkeria sexistaren prebentzioan sakontzea, indarkeria sinbolikoari eta horrek genero-desberdintasunaren eta nesken eta mutilen jokabide-estereotipoen normalkuntzan betetzen duen paperari buruz gogoeta eginez.
- ✓ Udalaren webgunean neskek bikote-harremanetan (bai bikote-harreman formaletan bai noizean behingo harremanetan) gertatzen den indarkeriari buruz galderak egiteko aukera emango dien gune bat sortzea.

VI. BIBLIOGRAFIA

- Aguinaga, Josune, in Informe Juventud España 2004
- AWID: "Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica", 9. zkia, 2004ko abuztua
- Foucault M., art. ¿De qué hablamos cuando hablamos de necesidades?
- Fraser Nancy, art. "Redistribución y reconocimiento: hacia una visión integrada de la justicia de género", R. Radl Philipp arg., (1996)
- Fraser, Nancy La lucha por las necesidades. Esbozo de una teoría crítica, socialista-feminista de la cultura política del capitalismo tardío." In debates feministas, 2. urtea, 3. alea, Mexiko, (1991)
- Molyneux Maxine, ¿Movilización sin emancipación? Intereses de la mujer, el estado y la revolución: el caso de Nicaragua, in La Transición difícil, koord. Coraggio J.L. eta Deere C.D., Siglo XXI arg., (1986)
- Murguialday, Clara eta Vázquez, Norma, "Un paso más: evaluación del impacto de género", Manual de Cooperació (2008)
- Ruiz Olabuénaga, J.I. eta Ispizua, M.A. (1989), La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa, arg. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo in Agulló E. (1998)
- Young, Kate, "Reflexiones sobre cómo enfrentar las necesidades de las mujeres", in "Una nueva lectura: Género en el desarrollo", Guzmán, Portocarreño eta Vargas, Flora Tristan Arg. Peru (1991)

1. ERANSKINA: JARDUEREN DENBORA-BANAKETA

Taula honetan, diagnostiko honetako jarduera nagusien denbora-banaketa zehatza azaltzen da:

DIAGNOSTIKOAREN JARDUERAK	DATAK
1. AURRETIKO LANA	OTSAILA/MARTXOA/APIRILA
1.1. Proiektuaren onespena	2010eko otsaila
1.3. Lan-taldearen antolamendua	2010eko martxoa
1.4. Ikerketa-esparruaren eta orientazioaren ezarpena	2010eko apirila
1.5. Galdeketaren diseinua, eztabaida-taldeen eta elkarrizketa erdi-egituratuen gidoia	2010eko maiatza
2. LANDA-LANA	MAIATZA/UZTAILA
2.1. Elkarrizketa erdi-egituratuak egitea	2010eko ekaina
2.2. Informazioaren informatizazioarekin hastea	Uztailaren 16ko ASTEA
2.3. Eztabaida-taldeak egitea	2010eko maiatza-ekaina
3. GEROKO LANA	IRAILA/AZAROA
3.1. Emaitzen analisisa	Irailak 6, 13, 20, 27ko asteak
3.2. Aurretiko txostena egitea	Urriak 11, 18, 25eko asteak
3.3. SORTZENeko taldeak egindako lanaren ondorioak lantzea	2010eko irailaren 27ko astea
3.4. Udaleko ordezkariekin kontrastatzea	2010eko azaroaren 8ko astea
3.5. Azken Txostena erredaktatzea eta berrikustea	2010eko azaroaren 22ko astea

2. ERANSKINA: TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taulak

1 taula. Galdeketa egindako emakumeen gaur egungo lehentasun-motak. Ehunekoak.....	25
2 taula. Osasuna, Sexualitatea eta Gizarte Inklusioa atalean identifikaturiko premiak.....	26
3. taula. Generoaren alorraren inguruko kontzeptuen gaineko ezagutza-maila .	33
4. taula. Desberdintasunaren pertzepzioa lanaren eremuan. Guztira	36
5. taula. Enpleguaren alorrean udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritziak. Guztira	38
6 taula. Aisia, Kirola eta Denbora Librea atalean identifikaturiko premiak	46
7 taula. Atal honetan hautemandako premiak	55

Grafikoak

1. grafikoa. Parte-hartzaileen lanbide-egoera	23
2. grafikoa. Parte-hartzaileen egoera sentimentala	23
3. grafikoa. Parte-hartzaileen egungo bizikidetzeta	24
4. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa prestakuntzan	30
5. grafikoa. Prestakuntzaren alorrean antzemandako desberdintasun-motak....	31
6. grafikoa. Prestakuntzaren premia berdintasunaren alorrean	33
7. grafikoa. Harreman pertsonalen eremuan udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia	35
8. grafikoa. Lanaren alorrean antzemandako desberdintasun-motak	37
9. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa etxebizitza erosteko/alokatzeko ..	39
10. grafikoa. Etxebizitzaren alorrean udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritziak	39
11. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa parte-hartze soziopolitikoan	40
12. grafikoa. Alor soziopolitikoan antzemandako desberdintasun-motak	41
13. grafikoa. Udalerrian, arlo politikoan eta gizarte-arloan neskek parte-hartze handiagoa izateko premia.....	41
14. grafikoa. Udaleko emakume gazteek zer alorretan eduki beharko luketen parte-hartze aktiboagoa.....	42
15. grafikoa. Parte-hartze soziopolitikoari dagokionez, udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia	43
16. grafikoa. Desberdintasunaren pertzepzioa harreman pertsonaletan	47

17. grafikoa. Harreman pertsonaletan hautemandako desberdintasun-motak	
18. grafikoa. Harreman pertsonalen eremuan udal mailako neurriak ezartzeari buruzko iritzia	49
19. grafikoa. Leku arriskutsuen identifikazioa.....	57
20. grafikoa. Arrigorriagan emakumeen segurtasuna hobetzeko neurriak	59
21. grafikoa. Emakume gazteek zer alorretan hautematen dituzten desberdintasun handienak	60